

Kultura

Europako musika bandarik onenaren saria
jaso du Durangoko Sugarri fanfarreak >12



Boluntarioak Argiñetako indusketetan lanean

Argiñetako indusketen azken fasean, Elorrioko herritarrei bertan lan egiteko aukera eman diete. Joseba Iturria eta Paul Attard indusketan parte hartzen diharduten boluntario taldeko kideak dira. Ekainaren 20ra arte hamaika lagun arituko dira arkeologia lanetan. Iñaki Garcia Caminok gidatzen duen Arkeologia Museoko lantaldeak 2012an jarri zuen proiektua martxan. > 2



20 urtetik beherako
gazteen artean
%87 elebidunak dira
Durangaldean > 4

Azken 30 urteetako datuak alderatuz gero, euskaren ezagutzak salto handia egin du Durangaldean. Datuetan 1981ean zegoen argazkia eta 2011koa alderatzen badira, aldaketa nabarmenak ikusten dira. Duela 30 urte hamarretik lau lagun ziren elebidunak, eta gaur egun %52 dira. Datua gazteengana ekarriz gero, aldea handiagoa da: 20 urtetik beherakoen artean %87 dira elebidunak, eta 1981ean %34,3 baino ez ziren. Horiek dira V. Mapa Soziolinguistikoak Durangaldera ekarri dituen ondorioetako batzuk.



UNDARRI BIKE

946 817 808 - www.undarribike.com
Bidebarrieta, 5 behea - 48215 IURRETA

Durangaldea > 3

Gazteei lana aurkitzen laguntzeko Jar Zaitetz Martxan proiektua aurkeztu du Amankomunazgoak

Durango > 4

Fundazioaren Munduko Kongresua antolatuko du Azterlanek Bilbon

Iurreta > 8

Amilburuko tunelean kamerak ipini gura ditu udalak

Durango > 6

Berbaro elkarteak 25. urtemuga ospatuko du maiatzaren 24an

COLUER 24"
Mendiko
bizikleta
315€



> ZORNOTZA**Domekan, giza kate sinbolikoa egingo dute Zelaieta parkean****> J.D.**

Ekainaren 8an erabakitze eskubidearen alde Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katearen aurrerapen moduan, Gure Esku Dago Zornotza dinamiko sustatzaileek giza kate sinbolikoa bat osatzeko deialdia egin dute domekan. 13:00etan, Zelaieta parkean, egin diete bertaratzeko gonbita zornotzar guztiei. Giza katea osatzeaz gainera, askotariko ekintzak antolatuko dituzte; 11:00etatik aurrera umeentzako jolasak egongo dira eta 12:30etik aurrera koruen saioa eta erromeria.

Oraingoz, 650 bat lagunek eskuratu dute ekainaren 8ko giza katean parte hartzeko metroa Zornotzan. Kopuru hori nahikoa da kilometro osoa betetzeko, baina zornotzarrak ez dira horregaz konformatzen eta 800 baitz kanpaina abiatu dute: 800 herritar batu gura dituzte euren kilometroan. Domeka goizero eskaintzen dute metroa eskuratzeko aukera Politenako arkupean.

Zornotzari Abadiñon dagoen giza kateko laugarren kilometroa osatzea: Zelaietarako sarrerako biribilgunean hasiko da eta Mendiola auzorako sarrean amaitu.

> MAÑARIA**22 postu baino gehiago egongo dira domekako azokan****> MARKEL ONAINDIA.**

Jai giroak hartuko ditu domekan Mañariko plaza eta inguruak. XVIII. Artisau, Elikadura eta Landare Azoka egingo dute 10:00etatik aurrera, eta 22 postu baino gehiago ipiniko dituzte plazan, arlo guztiak kontuan hartuta. Hemeretzi postutan baserriarren produktuak egongo dira salgai eta hirutan loreak; horrez gainera, ahuntz azpigorrien erakusketa ere ipiniko dute ikusgai. Aurten, lehenengo, animaliak plazan bertan egongo dira gainera. 14:00ak arte irauko du gutxi gorabehera azokak.

Azokaren bueltarako beste hainbat ekintza prestatu dituzte. Adibidez, 12:30etik aurrera, okela pintxoak salduko dira bi euroan. Ibilaldiak, Gure Esku Dago eta Goienerekin ere mahaia jarriko dituzte. Pilotalekuan umeentzako jolasak eta EHNERen erakusketa ipiniko dituzte.

> DURANGALDEA**Gazteei lana aurkitzen laguntzeko proiektua aurkeztu du Behargintzak**

Gazteen aukera sozio-profesionalen kalitatea hobetzea du helburu proiektuak



Proiektuaren aurkezpeneko deitutako prentsaurrekoan Durangaldeko hainbat udal ordezkariak parte hartu zuten.

> JONE GUENETXEA

Lana bilatzerako orduan formakuntza edukitzea nahikoa ez dela izaten jakitun, Jar Zaitz Martxan proiektua abiatu du Durangaldeko Amankomunazgoak. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Udala Gaztedi hitzarmenaren bidez, hainbat ekintza garatuko dituzte hurrengo hila-beteetan. Amankomunazgoak Behargintzaren bidez garatuko

duen proiektuan hamabi herritar 16 eta 29 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute: Abadiño, Zornotza, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibar.

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek azaldu duenez, "ekimenaren helburua eskualdeko gazteen aukera sozio-profesionalen kalitatea ho-

betzea da. Horretarako, gazteek dituzten gaitasunak maximizatu, eta enplegua lortzeko aukerak aztertuko dira, autoenplegura heltzeko".

Proiektua, formazioa eta enplegua orientatutako zortzi ikastarotan oinarritua dago. Ikastaro bakoitzak 44 orduko iraupena izango du, eta Zornotzan, Durangon eta Ermuan eskainiko dituzte. Ikastaro horietan gazteek

hainbat gai landuko dituzte: gaitasun profesionalak, motibazioa, komunikazioa, lidergoa, gatazken inguruko irtenbideak, talde-lana eta gizarte gaitasunak. Era berean, lana bilatzeko tresnak eta pertsonala aukeratzeko teknikak landuko dituzte.

Gazte ekintzaileen gela

Ekintzaileak bultzatzeko helburuagaz, datorren ekainetik abendura bitartean, gazte ekintzaileen gela jarriko dute martxan Zornotzan, Durangon eta Ermuan. Bertan gazteek dituzten ideiak lantzea da asmoa. Banakako tutoretza eta enpre-setarako zein proiektuetarako laguntza jasoko dute. Horretaz gainera, lan arloan zein arlo fiskalean eta finantzarioan aholkularitza jasoko dute. Ikasteko eta batzarrak egiteko gelak doan izango dituzte eskuragarri. Dinamizazio talde batek proiektua edo ideia osatzen lagunduko die.

Gainera, ekintzaileen proiektuak abian jartzeko zuzeneko diru-laguntzak emango dituzte, Gizarte Segurantzaren kotizazioak ordaintzeko eta jarduerak ekonomikoan alta emateko. Diru-laguntza 3.000 eurokoa izango da, gehienez. Proiektu honek 274.480 euroko aurrekontua du. Aldundiak %70 ordainduko du eta gainerakoa ekimenean parte hartzen duten udalek.

Europako hauteskunde kanpaina**> JOSEBA DERTEANO**

Datorren maiatzaren 25ean Europako hauteskundeak direla eta, alderdi politikoek hainbat ekitaldi aurreikusitako dituzte Durangon. Joan zen zapatuan, EAJk Ezkurdin antolatu zuen ekitaldian Iñigo Urkullu lehendakariak Artur Mas Katalunian presidentegaz egindako bilera kritikatu zutenei mezua bidali zien: "Isilarazi nahi bagaituzte, ezten egingo gaituzte".

Ezker Anitza-IU-Iratzari-EKI koalizioak martitzenean, Durangon, antolatutako

ekitaldian Leire Martinez hautagiak azaldu zuenez, "Durangaldean egoera ekonomikoa ez da ona, eta ez da ona izango enpleguaren aldeko politikak eta politika sozialak aldatu arte".

PSE-EEk Larrosaren Eguna ospatuko du Durangoko Landa-go Gunean, domekan. Hauteskundeak ardatz izango dituen ekitaldira 3.000 lagun bertaratzera aurreikusten dute. Eider Garaizabal hautagaiarekin batera, Jose Antonio Pastorrek, Patxi Lopezek eta Elena Valencianok parte hartuko dute ekitaldian.

EH Bilduk datorren maiatzaren 21ean egingo du ekitaldi politikoa, 19:00etan, Ezkurdin, eta Dani Maeztuk eta Niko Morenok hartuko dute parte.



Ezkurdin lehendakariak, Andoni Ortuzarrek eta Izaskun Bilbao parte hartu zuten.



Ezker Anitza-IU-Iratzari-EKI "benetako enplegu politikak" eskatu zituen.

Gure klinikan
**HORTZ
SCANNER-a**

darabilgu Diagnostiko Aurreratua egiteko



80€

Bigarren planifikazioa zure inplanteetarako
Sistema berria gure eskualdean

15% -rainoko
DESKONTUAK

WEB GUNeko TARIFETAN

12 HILABETE
ARTEKO
FINANTZAKETA
INTERESIK GABE*

Kontsultatu gure
tarifak hemen:
www.clinicaekoden.com

* 12 hilabete baino gehiagorako finantzaketetarako, banku-finantzaketa kudeatzen dugu. R.P.S. 44 / 14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

> DURANGALDEA

Duela 30 urte baino 20.000 lagun gehiago dira euskaraz bizitzeko gai Durangaldean

1981ean biztanleen erdia erdalduna zen; gaur egun, %70ek daki euskaraz

> AMAIA UGALDE

Jaurlearitzak argitaratutako azken mapa soziolinguistikoaren arabera, herritarren %52 elebiduna da Durangaldean eta %18 elebidun hartzailea –euskaraz ulertzeko gai dira, baina ez dira oso ondo moldatzen komunikatzerakoan–. Euskararen alde egindako lanari esker, 1981ean baino ia 20.000 euskaldun gehiago dago Durangaldean. Urte horretan biztanleen erdia erdaldun elebakarra zen, eta orain hamarretik hiru dira euskaraz ulertzen ez dutenak.

Orokorrean Durangalde osoan igo da ezagutza, salbuespen batzuk kenduta: Iurretan, Izurtzan, Mallabian eta Mañarian bajatu egin da euskaldunen

kopurua. Kasu horietan eragina izan dezake etxeen eraikuntzak eta kanpotik etorritako jendeak. Dena dela, orokorrean ezagutzak gora egin du, eta horrek harreman sareetan euskaraz gehiago egiteko aukera eman dezake.

Hezkuntza sistemaren lana
Euskaldun kopuruaren hazkuntzan zerikusi handia dauka eskolen euskalduntzeak. Kontuan hartu behar da 20 urtetik behera

20 urtetik beherakoen artean %87 dira elebidunak; 1981ean %34,3 baino ez ziren


%87 inguru direla elebidunak Durangaldean, eta 1981ean, berriro, adin tarte horretan %34,3 zirela. Datu adierazgarri bat dago adin tarte horretan: hamarretik lauk eskolatik bakarrik jaso du euskaraz, eta euren bigarren hizkuntza da. Duela 30 urte gazte gehienek euskaraz zuten lehen hizkuntza.

Etxeko erabilera

Mapa soziolinguistikoaren arabera, euskararen etxeko erabilera bajatu egin da azken urteetan. 1991n etxeen %29,6an nagusiki euskaraz berba egiten zen; 2011n %22,6an. Gaztelaniaz egiten da nagusiki hamarretik sei etxetan, eta beste hizkuntzaren bat egiten dute etxeen %2,2an.



Eskolak euskaldundu izanak eragin handia du ezagutzaren igoeran.



Euskarak, urtez urte, gero eta hiztun gazteagoak ditu Durangaldean

Hiru eremu sailka daitezke kokapenaren arabera

Durangaldeko udalerririk hiru multzotan sailkatu ditzakegu, kokapenaren eta euskaldunen ehunekoen arabera.

Lehenengo multzoan, bost udalerririk daude: Zaldibar, Berriz, Abadiño, Iurreta, Durango eta Zornotza. Bost udalerririk horietan euskaldunen kopurua %50 ingurukoa da, eta eskualdea zeharkatzen duen errepide nagusia (N-634) bertatik pasatzen da.

Bigarren multzoan, bi udalerririk daude: Elorrio eta Atxondo. Bi udalerririk horietan euskaldunen ehunekoa aurreko multzoarena baino handiagoa da (%60

inguru), eta eskualdean dagoen bigarren errepide nagusiak (N-636) zeharkatzen ditu.

Hirugarren multzoa eskualdeko udalerririk euskaldunenek osatzen dute: Mallabiak, Garaik, Izurtzak, Mañariak eta Otxandioak. Eskualdeko errepide nagusietatik kanpo daude, eta euskaldunen kopurua %70 ingurukoa edo hortik gorakoa da.

Azken 30 urteotan, euskararen ezagutzak, oro har, gora egin du Durangaldean, baina bilakaera ez da modu eta noranzko berean eman eskualdea osatzen duten udalerririk guztietan.

Izan ere, lau udalerririk behera egin du euskaldunen kopurua. Beherakada hori, neurri batean behintzat, zergatik gertatu den ulertzeko, kontuan izan behar da azken hamar-hamabost urteotan eraiki den etxe kopuru handia. Tamaina batetik gorako hiriguneetan ez ezik, udalerririk txikietan eta landa eremuetan ere etxe asko egin dira. Gertakari horrek eragin dituen biztanleen mugimenduak euskararen mesederako izan dira gune erdaldunetan, baina gune euskaldunetan kontrako eragina izan dute. Gure eskualdeko zenbait udalerririk bigarren hori gertatu da. Hau da, bertara bizitzera joan diren pertsonak (atzerrikik etorritakoak barne), batez beste, bertan bizi direnak edo bertatik aterata direnak baino erdaldunagoak dira. Horren ondorioz, euskaldunen ehunekoa ez da beste toki batzuetan beste hazi edo, esan bezala, behera egin du

zenbait kasutan.

Euskararen ezagutzak izan duen hazkundeak euskaldunaren tipologiaren aldaketa ekarri du berarekin. Duela 30 urte,

Askok eskolan ikasi dute euskaraz, familia erdalduna dute eta errazago moldatzen dira erdaraz

euskalduna adin batetik gorako pertsona zen, euskaraz etxean jaso zuena eta euskaraz etxekoekin eta harreman informaletan erabiltzen zuena. Gaur egun, aldiz, euskalduna gero eta gazteagoa da. Askok eskolan ikasi dute euskaraz, familia erdalduna dute eta errazago moldatzen dira erdaraz. Horrek guztiak eragin zuzena du euskararen erabileran, bereziki erabilera informalean.



Jon Aizpurua Espin

Hizkuntza Politikarako Saillburuordetzako teknikaria eta Barbaroko kidea



Lanerako Langile Trebatuak

ZIKLO GUZTIAK EUSKERAZ ETA GAZTELERAZ

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
maiatzaren 27tik
ekainaren 6ra

Matrikula
uztailaren 9tik 16ra

Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com



> DURANGALDEA**“Aukera aparta da gure gaitasun teknologikoak munduari erakusteko”**

Xabier Gonzalezek IK-4 Azterlanek antolatutako Fundizioaren Munduko Kongresua aurkeztu du

> MARKEL ONAINDIA

Astlehenean hasiko da kongresua. Zergatik Bilbon?

Urte birik behin egiten da Fundizioaren Munduko Kongresua. Industria horretan ospe handiena duen ekitaldia da, eta bere egoitza aldatu egiten da. Pribilegio handia da hemen ospatu ahal izatea. 2024ra arteko egoitzak zehaztuta daude, eta gure inguruan horrelako bat egiteko aukera ez dugu urte askoan edukiko. Esperientziak eta azkenaldiko aurrerapen teknologikoak trukatzeko da helburua. Fundizioak paraleloki dauzkan beste sektore batzuk ere landuko dira, piezen mekanizazioa, adibidez. Bezeroak ere hor daude; gaur egun ez dago ia objektu bat ere galdatutako osagirik ez duenik: telefonoak, ibilgailuak, hegazkinak, espazio ontziak... Automozio sektoreaz, eolikoaz

eta energiarenaz berbetan gabilta. Sektore aeroespazialean, esaterako, prestazio handiagoko elementuak eskatzen dabilta.

Zer onura dakar Azterlanera?

Erroka bat da, baina gure industriak munduan presentzia edukitzeko aukera bat ere bai. Gure fundizio industria lehiakorra da; inguruko enpresa batzuk mundu osoan lehiakorrenak diren piezak fabrikatzen dabilta. Aukera aparta da gure gaitasun teknologikoak munduari erakusteko. Gainera, enpresa multinazionalak egongo dira erosteko prest. Guk, zentro teknologiko lez, gure enpresei laguntzen diegu. Urte askoan gabilta kongresuan parte hartzen, eta 2008an eta 2012an tekniko onenari saria eman ziguten. Kongresua Bilbon egitea eskatu genuen, eta Espainiako fundi-



Gonzalez, Azterlaneko egoitzaren aurrean.

zioen elkartegaz eta mundu mailakoagaz antolatuko dugu.

Berbaldiak, erakusketak eta bisitak egingo dituzue, ezta?

800 bat adituren partaidetza espero dugu. 180 berbaldi egongo dira, 135 herrialdetatik. Bisitetan Durangaldean ere izango gara, hiru bat enpresatan.

Durangaldean badauka pisua fundizioaren sektoreak, ezta?

Aktibitate esanguratsua dauka. Pieza txikiak, ertainak eta handiak zein metal injektatuzkoak egiteko. Gauzak ondo egiten dabilzan enpresak daude. Uste dut estanzioa dela sektore nagusia, baina fundizioak ere garrantzi handia dauka.

> OTXANDIO**50 lagunek parte hartu dute Herri-olaren herrigintza tailerrean****> JOSEBA DERTEANO**

Herri-ola egitasmoak datozen urteetan Otxandioren garapen eredu markatzea du helburu. Herriko etorkizuna eraikitzeke egitasmoa da. Egitasmo hori herritarren parte hartzearen bidez osatzen dabilta eta, bide horretan, herrigintza tailerra egin zuten joan zen zapatuan. Tailerra *Espazio ezaguna* izeneko metodologia berezia erabilia gauzatu zuten; parte-hartzaileak taldeka banatu zituzten, aldirik aldira, batetik bestera txandakaturatuta. 50 lagun batu ziren tailerrean eta hainbat ideia sortu ziren metodologia hori erabilia. Eskolako gimnasioa ekimen horretarako beren-beregi jantzita egon zen, eskolako gaztetxoek egindako lanari esker.

Orain, tailer horretan jasotako informazioa eta herritarrek egindako ekarpenak sailkatu eta aztertu egingo dituzte, horrela Herri-ola egitasmoa aberastuta.

> ZALDIBAR**Zaldibarko Ahotsak aurkezteko ekitaldia**

Udaletxean aurkeztu zuten proiektua, martitzenean

> ITSASO ESTEBAN

Zaldibarko udaletxeko sarrean elkartu ziren martitzenean Ahotsak proiektuan parte hartu duten hainbat zaldibartar eta aurkezpena entzutera joandako beste hainbat herritar. Ekimenean parte hartu dutenei esker emateko antolatu zuten ekitaldia, eta Arantza Baigorri

alkateak eta Inma Eguen euskara teknikariak eman zioten hasiera. Ondoren, Ahotsak proiektuko kide bik eman zituzten ekimenaren inguruko azalpenak. Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren webgunea eta Zaldibarko herritarrengandik jasotako informazioagaz ekitaldi horretarako egindako bideoa erakutsi

zieten aurkezpena bertaratu ziren herritarrei.

Beragaz izandako solasaldien grabazio osoa jasotzen duen DVD bat eta diploma bat jaso zituen oroigarri eta eskertza gisa, martitzeneko udaletxeko aurkezpen ekitaldira gerturatu zen informatzaile bakoitzak.

Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzea eta hedatzea du helburu Ahotsak ekimenak, eta, dagoeneko, Euskal Herriko hainbat txokotan egindako elkarrizketekin osaturiko datu-base horren parte dira 80 urtetik gorako hamahiru zaldibartarren testigantzak ere.



Egindako bideoen lagin bat erakutsi zuten ekitaldian.

AURREMATRIKULAZIO DATAK

- **DBH:**
 - Gela egonkorra
 - Laguntza gelak
 - Curriculum anitzak eratzeko programak
- **BATXILERGOAK:**
 - Zientziak eta Teknologia (Aukera: eleanitza)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (Aukera: eleanitza)
 - Arteak (Arte plastikoak eta diseinua)
- **ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA (ZIG)**
- **HEZIKETA ZIKLOAK**
 - Erdi mailako heziketa zikloa: Landa Inguruneke Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D eredu)
 - Goi mailako heziketa zikloa: Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena (D eredu)

Heziketa
Zikloak
maiazaren 27tik
ekainaren 6ra

➔

Institutuan,
jakina!!

2014 Pila Juan de Zamarraga - Durango (EH)

Frai Juan Zumarraga, 21-23, DURANGO - Tel.: 946 817 730-946 817 325 - Fax: 946 810 258
e-posta: fjzumarraga@euskalnet.net - www.durangobhi.net

> DURANGO

Euskararen aldeko lanean, 25. urtemuga ospatuko du Berbarok

Hilaren 24an egingo dute Berbaroren urtemuga jaia

> MARKEL ONAINDIA

“Jende askoren lanari esker ailegatu gara gauden lekura”. Durangoko Berbaro euskara elkarrekin 25 urte bete ditu aurten, eta Maite Berriozabal kudeatzaileak berba horiekin eskertu gura izan du urteotan elkarrekin bueltan ibili diren guztien ekarpena. Bere ustez, lan handia egin da langileen aldetik, “baina, batez ere, boluntarioen aldetik”. Euskaltzale guztiak batera ospatu gura dute urtemuga, maiatzaren 24an.

Duela 25 urte euskaltzale batzuek sortutako elkarrekin ibilbide oparoa eduki du. Euskararen erabilera indartzeko helburuz makina bat ekimen garatu dituzte, eta proiektu zehatzak ere bai: Plateruena eta *Anboto*, adibidez. Elkarrekin, antzokiaren

eta hedabidearen arteko lotura sendotzen hasi ziren duela pare bat urte: “Helburu bera dauka, leku beretik sortutako hiru proiektu garelako”. Berbaro taldea osatzen dute hirurek.

Etorkizunean ere egongo da zer eginik euskararen alde. Alde horretatik, Berriozabalek adibide lez esan du gazteengan ipiniko dutela arreta: “Euskaraz bizitzeko hautua gazteengan hurreratzea izango da gure helburuetako bat”.

Euskararen normalizazioan pausoak eman badira, herrigintzan ibili diren gainerako elkarrekin eta pertsonengatik ere bada, Berriozabalen arabera. “Ezinbesteko ikusten dugu beste elkarrekin batzuekin beharrez jarraitzea”. Baina, kontrara, erakundeek ekarpen falta igarri



Berbarok 20 urte bete zitueneko ospakizuna.

du: “Herrigintzaz gainera, administrazioek ere apustu sendo bat egin behar dute”.

Hilaren 24an jaia

Irudia edo logoa berriztuta egingo du Berbarok urteurreneko jaia hurrengo zapatuan. 11:30ean umeentzako jolasak

egongo dira Santa Ana plazan, eta 13:00etan kantu-poteoa egingo dute Goienkaletik. 14:30ean Plateruenean bazkalduko dute; txartelak antzokian eta Berbaron daude salgai. 17:30ean ikuskizuna eskainiko dute, eta, ostean, poteoan irtengo dira. DJ Bullegaz amaituko dute festa.

Bateginezen bidez laguntza jaso duen Pochutar batek Durangaldea bisitatuko du

Bateginezen bidez amabixia dauka Portuguezek

> M.O.

Cristina Cuj Cuj Portuguez izan zen Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundearen laguntza jaso zuen Pochutako (Guatemala)

lehenengo umeetako bat. Durangaldeko emakume bat bere amabixia bihurtu zen Bateginezen kanpainak bultzatuta, eta 1995ean eskolan hasteko aukera



Bateginezeko kideak prentsaurrekoan.

eduki zuen laguntza horregatik. Gero, bigarren hezkuntzan eta Lanbide Heziketan ere ikasi ahal izan zuen. Gainera, urtero osasun azterketa bat egin izan diote. Amabixiagaz sortutako hartu-emanagatik bisitan etorri da, eta, laguntzari esker bizitakoaren lekukotza emango du datorren egunean, 18:30ean, Pinondon.

Portuguezek antzera, dozenaka umeri lagundu diete hogeitau urteotan. Adibide lez, azken hamar urteetan 665.000 euro bideratu dira Durangalderetik. Baina diru-emaielen kopuruak behera egin du krisiaren eraginez; 2004an 334 pertsonak beste horrenbeste ume babestu zituzten, eta aurten 275 dira. Horregatik, Bateginezekoek elkartasun ekimenera batzeko deialdia egin dute; urtean 200 euro balio du umea babesteko. Hilaren 17an eta 24an mahaia ipiniko dituzte Alde Zaharrean, 10:30etik 13:30era. Bestalde, hilaren 31n pastel maratoia egingo dute arratsaldean Andra Marin, eta bertan Pochutarako ekarpen solidarioak jasoko dituzte.

Etxeetako plaka frankistak kentzea eskatu du udalak

> MARKEL ONAINDIA

PSE-EEren ekimenez, udalak gutun bat bidaliko die etxe atarian plaka frankista daukaten herritarrei. Plakak kentzeko eskatu, eta, gura badute, udalak berak doan egin ahal duela azalduko diete herritarrei gutun horretan.

Pilar Ríos zinegotzi sozialistak adierazi du, 2007ko Memoria Historikoaren Legearen arabera, ikur horiek desagertu behar direla. Neurria “nahitaezkoa eta justua” dela esan du, “herritarrei hainbeste sufrimendu eta min eragin zion erregimen baten ikurrak direla kontuan hartuta”.

Joan zen asteko udal batzorde batean onartu zuten plaka frankistak kentzeko ekimena. Riosen arabera, auzokide batzuen eskariari jaramon eginda sustatu dute ekimena.

> IZURTZA

Jaietarako kartel lehiaketa abian dago ekainaren 13ra arte

> J.D.

Izurtzako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa abiatu du udalak. Ekainaren 13ko 13:00ak arte aurkeztu daitezke lanak Izurtzako udaletxean. Kultura Batzordeko kideek osatutako epaimahaiak aukeraturako kartel irabazleak 250 euroko saria jasoko du.

Kartelaren neurriak 50x70 zentimetrokoa izan behar du eta ondorengo testu hau jaso behar du nahitaez: “Izurtzako jaiak 2014”. Jai horren ezaugarriren bat ere agertu behar da kartelean, eta berori lantzeko teknika librea izango da. Entregatzerako orduan lanek euskarri zurrun baten bidez babestuta eta behar bezala jasota egon behar dute, hondatu ez daitezten.

Interesa dutenek kartel lehiaketari buruzko oinarri guztiak www.izurtza.net webgunean dituzte.

> GARAI

San Isidro eguna ospatu zuten atzo, jubilatuen elkarteak deituta

> M.O.

Atzo San Isidro eguna ospatu zuten Garain. Urtero, baserri-tarren eguna izaten da maiatzaren 15a, eta efemeride horren bueltan ospakizuna egiten dute Garain. San Migel nagusien elkarteak antolatzen ditu egun horretako ekintzak. Edozelan ere, azaldu dutenez, herritar guztiak animatzen dituzte bertan parte hartzera.

Atzo, 12:00etan batu ziren elizan, egunagaz lotutako meza entzuteko. Gero, 14:00etan, herri bazkaria egin zuten Herriko Tabernan. Besteak beste, perretxiko krema, bakailao hostopila eta legatza dastatzeko aukera izan zuten bazkari hurreratu zirenek. Bazkalostean agurtu zuten jai, hurrengo urtera arte.

lea artibai
Ikastetxeak
Etorkizuna erakiz

www.learitik.com
info@learitik.com
94 616 9002

BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA

Erdi maila

- Beroa sortzeko instalazioak (Iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenua elektrimekanikoa

Goi maila

- Administrazioa eta finantzak
- Telekomunikazioak eta informatika sistemak
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Mekatronika industriala

Arratsaldeak:

- Efizientzia energetikoa

AURREMATRIKULA
27/05-06/06

ORIENTAZIO EGUNAK
Maiatzaren 21ean eta 22an
15:30etatik 19:30etara

Guk!
Lea Artibai
#guklearartibai

IURRETA

Amilburuko tunelean kamarak ipintzea, 2014ko asmoen artean

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dute 2014ko udal aurrekontua



Udaltzainak arduratuko dira bideozaintza sistemaz.

> AMAIA UGALDE

Iurretako Udalak ia 5.300.000 euroko aurrekontua onartu du EAJren eta PSE-EEren botoekin. Bildu abstenitu egin da eta PPK kontra bozkatu du. Iazkoa baino %1,97 txikiagoa da aurtengo aurrekontua, baina inbertsioetarako 74.000 euro gehiago izango ditu udalak, zorpetze maila bajatu delako. Besteak beste, Maiztegin leihoak aldatzen hasteko 50.000 euro gorde dituzte, eta Amilburuko

tunelean bideozaintza ipintzera 18.000 euro bideratuko dituzte.

“Herriko puntu beltzetako bat” da Amilburukoa, Iñaki Totorikaguenaren berbetan. Udaltzainak izango dira kamara horien arduradunak. Bilduren ustez, segurtasun metodoak hobeto aztertu beharko lirake; “udaltzainek gauz ez dute lan egiten, eta gaua bada momentu kritikoa, kamarak ipintzea ez da beharrianetara egokitzen”. Abstenitu egin da Bildu, aurkez-

tu dituzten zazpi emendakinetik bi onartu dituztelako. Koalizioaren iazko proposamen batzuk aurten onartu dira; idazkari albokoaren lanpostua zerrendatik kentzea eta Elizaldeko udal lokalak atontzen hastea, esaterako.

Etzegabetzeen kontra

PSE-EEko Marian Muñoz zinegotziak nabarmendu duenez, etzegabetzei aurre egiteko protokolo bat adostea proposatu dute sozialistek. Larrialdi egoeratako gizarte-laguntzetan baldintza gehiegi eskatzen dira Muñozen ustez, eta horrek laguntza “behar besteko urgentziagaz ez ematea eragiten du”.

Aurrekontuekin kritikoen PPko Nacho Toca agertu da. Kontra bozkatu du. Hainbat “kalkulu errore” aipatu ditu, eta PPko kideak esan du udaltxearen funtzionamendua “oso garestia” dela. Alkateak erantzun dio aurrekontuen ia erdia gizarte-ekintzara bideratu dutela: “Pertsiana igotzea bera oso garrantzitsua da”.

Euri ura jasotzeko sistema ipini dute martxan ortu ludikoak ureztatzeko

Bertan dagoen eraikineko teilatutik jasoko dute ura

> J.D.

Ortu ludikoetan ekoizten diren ortuariak ur naturalagaz ureztatzea ahalbidetuko duen sistema berria ipini dute. Gune hartan dagoen eraikineko teilatuko euri urak deposito bitara batuko dira zorrotan sistema baten bidez. Biltegi bakoitzak 1.300 litro ur gordetzeko edukiera du; 2.600 litro guztira. Iurretako alkate Iñaki Totorikaguenak eta ortueta-ko teknikoak den Ramon Zearretak sistema berriaren gaineko azalpenak eman zituzten atzo. Abantaila nagusi bi ditu euri ura batzeak; batetik, kostuak gutxitzea ekarriko du, ur-hornidura sare orokorrarekiko de-

pendentzia jaitsiko delako. Eta, bestetik, ortuariak ureztatzeko erabiliko den ura naturala izango da, klororik gabekoa.

Gaur egun 40 lagunek dute



Biltegi bakoitzak 1.300 litro hartu ditzake.

ortu ludikoa Iurretan. Durangaldean aitzindariak izan direla azaldu dute, eta ondoko herri askotatik (Berriz, Markina eta Derio, adibidez) etorri direla Iurretako azpiegiturek zelan funtzionatzen duten ikustera.

> ABADIÑO

Giza dorre bat zelan eraikitzen duten ikusgai santrokazetan

‘Castell’ bat osatuko dute jaietan, Txaporta plazan

> ITSASO ESTEBAN

Gerbasen kalejiragaz hasi ziren astelehenean Zelaietako San Trokaz jaiak, eta atzoko San Trokaz eguneko dantzarien ohiturazko ekitaldien ostean, askotariko proposamenak dakartza jai egitarauak maiatzaren 25era arte. Asteburu honetan, datorren astean eta hurrengo asteburuan ere denetarik ekitaldiak izango dira San Trokaz jaietan.

Oparoa da, esaterako, musikazaleentzako eskaintza: McOnak, The Mocker's eta The Capaces taldeak ariko dira bihar, Txanporta plazan; Herri Maite Durangaldeko akordeoi taldekoek joko dute etzi, 19:00etan, nagusien egoitzaren aurrean; Jaizale txistulari elkartearen eta Done Zezili abesbatzaren emanaldia izango da domeka eguerdian; Gontzal Mendibilen, Mari Fe Nogalesen eta Niko Etxarten kantaldia izango da maiatzaren 23an, probalekuan;

eta Exaixu, Boikot eta Criatura taldeak ariko dira Txanporta plazako maiatzaren 25eko zuzeneko musika emanaldian.

Bestalde, Bartzelonako Poble-sec auzoko *casteller* taldeak giza dorrea zelan eraikitzen duen ikusteko aukera izango da, berezitasun bezala, santrokazetan, aurten. Maiatzaren 25ean, 12:00etan hasiko dute dorrearen eraikuntza Txanporta plazan.

Urteroko beste hainbat kirol ekintza eta umeei zuzenduriko askotariko hainbat proposamen, eta maleta siku bezalako ohiturazko hainbat hitzordu ere badakartza jaietako egitarauak.

Abadiñoko Udalak ohar batean jakinarazi duenez, Jai Bartzordeak 40.000 euroko aurrekontuagaz osatu du egitaraua. “Herritar horien lanari esker aukera ona izango dugu denok jaietan gozatu ederra hartzeko”, azpimarratu du Jose Luis Navarro alkateak.

> ATXONDO

Udalekuetarako izen ematea hasi dute

Marixurrike aisialdi taldeak udalekuak antolatuko ditu ekainaren 30etik uztailearen 24ra

> JOSEBA DERTEANO

Aurten ere Marixurrike aisialdi taldeak udaleku irekiak antolatuko ditu Atxondon askotariko ekintza eta irteerekin. *Etorri Marigaz olgetan* izenagaz ekainaren 30etik uztailearen 24ra izango dira udalekuak.

Gura dutenek lau asteetan parte hartu dezakete udalekuetan, baina aste bat, bi edo hirtan gurago dutenek ere izango dute horretarako aukera. Matrikulazio epea gaur hasiko da eta maiatzaren 31ra arte egongo da

zabalik. Familiako ume bik edo gehiagok izena ematen badute, merkeagoa izango da. Horrela, esaterako, izena ume batek soilik ematen badu, familiak 110 euro ordaindu beharko du lau astean truke, eta, bestela, 95 euro. Astebeteko eskaintza, aldiz, 40 euro ordainduko dute kide bakarraren kasuan, eta 35 euro gainontzekoek.

Gaur, izen-ematea hasteagaz gainera, batzar informatibora deitu dute, 18:30ean, udaletzeko udalbatzar aretoan.

katerin
ardoak
iñaki
uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



MAPFRE

Jabier Oruna - Idoia Izurieta
Bulego berria Berrizen!

Geltoki kalea, 9 · Berriz 48240
94 498 41 90 · forunaa@mapfre.com

> BERRIZ

Kanposantu ondoan atonduko dituzte herri ortuetako partzelak

Hogei hektareatan herri ortuak eta txakurrak libre ibiltzeko gunea atonduko ditu Berrizko Udalak

**> AMAIA UGALDE**

Herri ortuak badaukate lekua: hilerrri ondoan, Ugarte familiaren lursail batean prestatuko ditu udalak herritarrentzako baratzetako partzelak. Udalak asteon sinatu du alokairu kontratua familiagaz, eta, ortuez gainera, txakurrak libre ibiltzeko gunea bat atontzeko lurra ere aloka-

O. Isoird: "Lurra garbitu, atondu, eta aurreraxeago ikusiko dugu zenbat partzela izango diren"

tu ditu. Gainera, Berrizburuko beste lursail bat ere alokatu dio familiari, Iñaki Lejarretaren omenez egingo duten BTT ibilbiderako.

Ortuak urte amaierarako prest egongo direla azaldu du Orland Isoird Berrizko alkateak: "Lurra garbitu, atondu eta aurreraxeago ikusiko dugu zenbat partzela izango diren".

Ekimenaren ideia ia udaleko inbertsioak erabakitzeko batzarretan irten zen. Durangaldean, Mallabian eta Iurretan ipini dituzte antzeko ortuak, nekazaritza ekologikoan oinarrituta. Isoirdek aurreratu du Berrizen ez dutela erabaki zelako ortuak izango diren, baina "ahalik eta ekologikoenak" izango direla.

BTT ibilbidea Berrizburun

Kanposantu alboko lurretan bi hektarea daude, eta, ortuez gainera, txakurrak libre ibiltzeko udalak atonduko dituen guneetako bat egongo da.

Horretaz gain, Berrizburun belodromoaren atzeko hektarea bat ere alokatu dio udalak Ugarte familiari. Iñakiren Lagunak taldeak Iñaki Lejarretaren omenez atonduko duen BTT ibilbiderako erabiliko du lursail hori.

Alokairu kontratua sei urterako sinatu dute. Urtean 900 euro ordainduko ditu udalak, eta kontratuan adierazi dutenez, erosketarako aukera egongo da, horrela adostuz gero.

> MALLABIA

Enplegu Planaren bidez langile bat kontratatuko dute

Auzo-konpost guneetan eta ortu ekologikoetan laguntzeko gainera, brigadari ere lagunduko dio

> JONE GUENETXEA

Mallabiko Udalak langile bat kontratatuko du Enplegu Planaren bidez. Beharginaren eginkizuna auzo-konpost guneetan eta ortu ekologikoetan laguntzea izango da. Gainera, udaleko brigadari ere laguntza eskainiko dio. Sei hilabeterako kontratua izango du. Soldataren erdia Lanbidek ordainduko dio eta beste erdia Mallabiko Udalak. Kontratazioa Urkiola Landa Garapeneren bitartez egingo du-

tela azaldu du Mila Mondragon Mallabiko alkateak. Mallabiak Ermuagaz batera hartu du parte planean.

Sei hilabeterako kontratua izango du. Soldataren erdia Lanbidek ordainduko dio eta beste erdia udalak

Hizkuntza eskubideen gaineko mozioa

> A.U.

Eguazteneko osoko bilkuran euskararen normalizazioari lotutako mozioa onartu zuen udalbatzak, EAJren eta Bilduren aldeko botoekin. Udaletxean euskaraz "zerbitzu hizkuntza" eta "lan hizkuntza" izatea aldarrikatu dute, besteak beste, testuan.

PSE-EEko Francisco del Pino ados egon da hasierako testuagaz, baina ez mozioari Bilduk erantsi dizkion puntuetako batezagaz: Legebiltzarrean egin duen legez, Espainiako Gobernuaren ordezkariaren postua kentzeko eskatu du Bilduk, eta hori "hizkuntza politizatzea" dela kritikatu du Del Pinok. EAJk eta Bilduk erantzun diote Espainiako Gobernuaren ordezkariak berak politizatu duela euskaraz.

Udalekuean izena emateko epea hasi da

> A.U.

Maiatzaren 30era arte eman daiteke izena Berrizko udalekuean parte hartzeko. Udaletxean, kiroldegian eta liburutegian daude izena emateko orriak. Hiru talde egongo dira udaleku irekietan: Txiki txoko taldea Haur Hezkuntzako umeekin, Gazte txoko taldea Lehen Hezkuntzako ikasleekin eta DBH abentura DBHkoentzat. Gaztetxoenak uztailaren 4tik 24ra edukiko dituzte udalekuak, eta DBHkoek uztailaren 4tik 18ra.

Plaza kopurua mugatua denez, Berrizen erroldatuek edukiko dute lehentasuna. Gurasoekin ekainaren 18an egingo dute batzarra udalekuen nondik norakoak azaltzeko.

Ume saharuiak udan hartzeko kanpaina martxan

> J.G.

Uda sasoiaren ume saharuiak etxean hartzeko kanpaina martxan jarri dute Mallabian. Ekimenaren parte hartu gura dutenek izena emateko aukera dute maiatzaren 20ra arte. Uztailean eta abuztuan etorriko dira ume saharuiak Euskal Herriko familietara. Udan Tindufeko (Aljeria) kanpalekuean izaten diren tenperatura altuak alde batera utzi eta mediku azterketak egin dizkiete hemen. Horretaz gainera, erbesteratuta bizi den herri saharuiari babesa adierazteko modua ere bada.

> DURANGALDEA ASTEON

Herrialde Katalanetako kantu inprobisazioaz berbaz, Intxaurren

HITZALDIA > Albert Casals Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko musika pedagogia irakaslea eta Mireia Mena kantaria gonbidatu dituzte Durangoko Intxaurre elkarteak maiatzaren 19ko berbaletan eskaintzera. Astelehenean, 19:00etan, izango da hitzaldi hori. Gaur egun oso ezaguna ez den bertso-glosen tradizioaz, Herrialde Katalanetako kantu inprobisazioaz, ariko dira Casals eta Mena. Tradizio hori ezagutarazteko helburuagaz.

'Pilotakadaz pilotakada' azken txanpara heldu da Abadiñon

PILOTA TXAPELKETA > Sakabanaketaren aurka Etixerat elkarteak antolatzen duen Pilotakadaz Pilotakada txapelketa azken txanpan sartu da. San Trokaz jaiak direla aprobetxatuta, Abadiñoko finalurrekoak eta finalak jokatu dituzte datozen egunetan. Palaz eta eskuz ariko dira pilotariak. Finalerdiak gaur, 20:30ean, jokatu dituzte palan zein esku pilotan. Txapelketa bietako finala maiatzaren 24an jokatu dituzte 19:30etik aurrera, Zelaietako pilotalekuan.

Amillateguik irabazi du tableta

ZOKETA > Larrantz Amillategi Azaceta (131.353) izan da Durangoko Salerosketak Be Euskaraz zozketaren sariduna. La Botica de los Perfumes dendak saldu du zenbakia. Merkataritza guneetan euskararen erabilera sustatzea da ekimenaren helburua.

**Iritzia**

Bidea laster egiteko, lasterbidea sortzen ari gara

Lasterbidean herri ekimena dugu, kirolaren espresiotik, korrikaren esparrutik zehazki, euskal errepresaliatu politikoen eta beraien gertuko eskubideen aldeko elkartasun keinua egiteko desiotik sortutako herri ekimena.

Ekimen honen bitartez, etxetik urrun kilometro askora bizi direnak etxera ekartzeko bidea irudikatu nahi da, etxeratzea errealitate bihurtu nahian.

Desagertzeko bokazioarekin jaio bada ere, errepresaliatu guztiak etxean izan artean elkartasun pausoak ez dute etenik izango herrialde herrialde mugituz.

Iaz, Oiartzunen ospatu zen lehen edizioa, eta, aurten, maiatzaren 18an, Larrabetzun izango

dugu zita. Motelago edo azkarra, korrika ez egiteko aitzakiarik ez da izango, bi ibilbide izango direlarik aukeran. Batetik, sailkapen eta guzti, norbere burua probatzeko lasterketa luzea; eta lasterketa labur herrikoia bestela. Hortaz gain, herri animazioa, bazkaria, txosnak, kontzertuak eta hainbat ekitaldi izango dira egun osoan, korrika ez bada ere, Larrabetzuko kaleetan zehar elkartasuna gauzatzeko.

Igandean Larrabetzun zure zangoen presentzia ezinbestekoa delako, lotu zapatiletako korrelak, luzatu giharrak, neurtu indarrak eta aurrera, denon artean elkartasun pausoak emanez etxera bidean jarriko ditugu eta!

Erlantz Zaldunbide
Lasterbidean

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta

• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

AAlderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Berbaz

Ricard Vilaregut | Zientzia politikoetan doktorea | Manlleu (Herralde Katalanak), 1972

“Erabakitze eskubidearen aldeko prozesua gizarte zibilak bultzatzea izan da arrakastaren gakoa”

Ricard Vilaregut politologo katalanak erabakitze eskubideaz berbaldia eskainiko du Abadiñoko Txanporta kultur etxean, bihar, 12:00etan; Pedro Ibarra katedraduna eta Angel Oiarbide Gure Esku Dago dinamikako bozeramailea izango ditu solaskide



> JONE GUENETXEA
CIEMEN nazio eta etnia gutxi-tuen nazioarteko Escarré zentroko presidentea izateaz gainera, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea da Ricard Vilaregut. Kataluniaren erabakitze eskubideari buruzko tesia egin du. Abadiñoko Gure Esku Dago dinamikak berbaldia antolatu du ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katearen harira.

Zelan definituko zenuke erabakitze eskubidea zer den?
Erabakitze eskubidea tekniki herrien autodeterminazio eskubidearen garapen bat da, baina demokrazia liberalaren testuinguruan aplikatuta. Beraz, erabakitze eskubidea populazio jakin baten aldarrikapena da, zein gobernu mota nahi duen eta zein artikulazio poli-

tiko gura duen erabakitze. Nondik gatozen edo nortzuk garen jakitea ez da garrantzitsua, baina gure etorkizuna erabaki nahi dugu.

Erabakitze eskubidearen aldeko prozesuak zein berezitasun du Katalunian?

Katalunian gizarte zibilak eta gizarte mugimenduek bultzatu duten dinamika izatea izan da arrakastaren gakoa. Gai politikoetan krisi garrantzitsua bizi dugu. Alderdi politikoetan krisi handia dago. Dagoeneko ez dira sinesgarriak. Baina ekimen hauek gizarte zibil apartidistak bultzatzen baditu –ez apolitikoa, ezberdina baita–, sinesgarriagoak dira gainerako gizartearentzat. Beraz, balorazioa positiboa da. Gaur egun beharrezkoa da mota honetako ekimenak gizarte zibil independentetik

bultzatzea. Egun, hori da edozein gizarte ekimenek arrakasta izateko giltza.

Zelan bizi izan zenuen giza katearen eraketa?

Antolaketan parte hartu nuen. Alde batetik, hasieran, katea osatuko ez genuen beldur ginen. Logikoa. Bestetik, prozesua aurrera zihoan heinean, batez ere, azken hilabete eta erdian, bagenekien katea sortuko zela. Azken une horretan tentsioa funtzionamenduaren antolaketak sorrarazten zigun, dena ondo joan zedin. Eguna bera euforia momentu bat izan zen.

Zein da giza katearen antolaketaren gakoa?

Herri antolaketan dago oinarria. Herri bakoitzean antolaketak talde bat egon behar da bere gunean katearen funtzionamen-

duaz arduratuko dena. Egun batzuk lehenago hori guztia artikulatzen bada, ez da arazorik zertan egon.

Euforia egunaren ostean, zer sentazio gelditu zitzaizuen?

Katalunian gobernuak eta alderdi politiko batzuek inizatiba hartu dute prozesu honetan, ekimenak aurrera egin dezan. Horrek erakusten du gizartearen mobilizazioek zerbaitetarako balio dutela. 2012ko manifestazioa eta Via Catalana atzerabueltarik gabeko oinarritzko bi puntu dira. Arrakasta izan da alderdi politikoek giza kateak eskatzen zuena betetzen joatea. Kontsulta baten alde egitea, ez independentziaren alde. Kataluniako jendeak bai edo ez bozkatzeko eskubidea izan dezala. Kontzeptu hori oinarritzkoa da. Guk hori demokrazia klabe batean egiten dugu. Irabazten duenak irabazten duela, mundu guztiak bere iritzia ematea gura dugu.

“

Mugimendu subiranista kontzeptualki berritzailea izan da gai honetan

Ñabardura hori gizarte osora heldu da Katalunian.

Gakoa demokrazia gehiago eskatzea da, ez gutxiago. Azaroaren 9an kontsulta egitea gura dugu, eta nork esan diezaioke ezetz horri? Oso zaila da horri kontra egitea. Bokazio demokratiko minimo bat dutenek kontsultari ezin diote ezetz esan.

Bai alde sozialetik, bai alde politikotik, zer egoeratan dago prozesua Katalunian?

Dakiguna da batasun zibil eta politikoa bat dagoela azaroaren 9an bozkatzeko. Batasun hori oso gutxitan gertatzen da. Gizarte zibila eta alderdi politikoak ados daude botoa emateko. Horrik aurrera bakoitzak bere lana egin behar du. Gizarte zibilak bere aldetik dihardu. Ekainaren 8an, zuen giza katearen egunean, Europa osoan *Castelletsen* erakusketa handi bat egingo dugu. Europako hiriburu nagu-

sietan, egun berean, giza gazte-luak egingo dira. Irailaren 11ko manifestazioa ere oso jendetsua izatea aurreikusten da. Gainera, hainbat berbaldi ari dira eskaintzen. Hori guztia azaroaren 9arekin lotua dago. Badakigu ez dakigula bozkatzeko dugun edo ez, baina badakigu presio guztia egingo dugula bozkatu ahal izateko.

Euskal Herrian, prozesua oso desberdina den arren, zein egoera bizi dugula deritzozu?

Euskal Herriak, indarkeria osteko agertokiagaz, oso aukera onak ditu. Agian epe motzera oraindik ezin da egin, baina epe ertainera ziur nago, gizarteak prozesua bultzatzen badu, prozesu katalanaren moduan joango dela. 2009an, Katalunian, Arenys de Munten kontsulta bat egin zen, eta denek anekdota moduan ikusi zuten. Orain, berriz, 2014an, prozesu interesgarri bat bizitzen ari gara. Euskaldunak animatzen dituzten giza kateak eta mota horretako ekimenak sustatzera, momentu batean gehiengoak lortzea zailak direla dirudien arren, prozesu honen lehenengo haziak direlako.

Euskal Herrian egin zenuen zure doktoretza tesia, erabakitze eskubidearen inguruan, hain zuzen.

Nire tesian azaldu gura nuen nola sortu den erabakitze eskubidearen inguruko mobilizazioaren prozesua Katalunian. Zergatik sortzen da orain eztabaida hau? Barneko mekanismoak, eta baita politikoak ere, azaltzea izan dut helburu, gaur egun gauden egoeran egotea azaltzen dutenak. Tesian atera nuen ondorioetako bat da prozesu sozial hauek, krisi ekonomikoari edo aukerei lotuta egon beharrean, bultzatzen dituzten mugimenduen gaitasunetan oinarritzen direla. Mugimendu subiranista kontzeptualki berritzailea izan da erabakitze eskubidearen inguruan. Ez da kontzeptu independentista bat, kontzeptu demokratiko bat baino. Aurretik egiten zituen gauzekin alderatuta berritzailea izan da. Aliantzak egin ditu aurretik harremanik izan gabeko sektoreekin. Jendearengana heltzen diren ekimen ezberdinak bultzatzea da gakoa.

Jose Mari 'Joe' González | Zornotza, 1971 | Saxofonista eta klarinetista

“Musika klasikoa berriz jotzeko aukera eman dit Arriagari buruzko lanak”

Botxo Boogies taldearekin Zornotzako Eleizetan zikloaren barruan joko du Jose Mari 'Joe' González zornotzarrak, gaur, Dudeako San Miguel basilizian

> ITSASO ESTEBAN**Oso aste betea daramazu, kontzertu askokoa. Zer gorputzal-di gaur Zornotzan aritzeko?**

Gogo handia daukat Zornotzan jotzeko, beti baita berezia norbere herrian jotzea. Musikan hainbeste urte daramatzadan arren, herrira bueltatzea beti da oso berezia. Gainera, kontzertu hau herrian eskaintzeak ilusio handia egiten dit. Arriagari buruzko kontzertua da, bitxia: musika klasikoa eta jazza uztartzen ditu, eta nik uste dut jendeari gustatuko zaiola.

Zornotzakoaz gainera, beste hainbat emanaldi daukazu egunotan.

Bai, esaterako, Joe González Quintet nire boskoteagaz jazz kontzertu bi joko ditut asteon, eta, zapatuan, Bartzelonan ariko naiz Doctor Deseo taldeagaz: biran nabil taldeagaz, alderdi rockeroago bat landuta. Aukera oso interesgarria eta polita da hainbat musika estilo lantzeko. Atom Rhumba taldeagaz ere aritu izan naiz, adibidez.

Zu bezalako musikari eklektikoak zer topatu du Arriagaren XIX. mendeko konposizioetan? 1806. urtean jaiotako Juan Crisóstomo Arriaga bilbotarrak musika klasikoa egiten zuen, eta nik ere bizi osoan jo izan dut musika klasikoa: ikasketak alor horretan egin nituen, orkestran jo izan dut, eta nire gurasoen etxean ere beti entzun izan dut musika klasikoa. Gaur egun

musika klasiko gutxiago jotzen dut, ahal besteko aniztasuna bilatu arren, musikari batek ezin duelako denean aritu. Musika klasikoak espezializazio handia eskatzen du. Musika klasikoa berriz jotzeko aukera eman dit Arriagari buruzko lan honek. Sorkuntzari dagokionez ere oso polita izan da, gainera: lan handia egin dugu Arriagaren musika beste estilo batzuetara eramateko. Oso aberasgarriak dira musikariontzat horrelako sorkuntza prozesuak.

Arriagaren urteurren ospakizunerako sortu zenuten emanaldia. Entzuleen harrerak eraman zaituzte gehiago zabaltzera?

Bai. 2006. urtean izan zen Arriagaren jaiotzaren 200. urteurrena, eta Bilboko Udalak enkargua egin zigun Arriagaren musika beste estilo batean eskaintzeko. Oso emanaldi polita eskaini genuen Plaza Berrian; oholtza batetik Bilboko Orkestra Sinfonikoak jo zuen klasiko tankeran, eta pareko agertokitik aritu ginen gu. Proiektua oso arrakastatsua izan zen eta diskoa grabatzea erabaki genuen. Arriagaren musika eta figura zabaltzeko aukera politikak dira gaurkoa bezalako zuzenekoak. Izan ere, jende askok ez daki Arriaga nor izan zen.

Musikagaz tartekatuta, azalpenak ere ematen dituzue, ezta?

Bai, saiatzen gara azaltzen nor izan zen Arriaga eta bere bizitza zelakoa izan zen. Esaterako,

13 urteagaz opera bat konposatu zuen prodijioa izan zen. Musikari testuingurua jarri gura diogu horrela, zer jotzen dugun ulertzeko. Oso inportantea da publikoagaz komunikazioa lortzea.

Ez da oso ohikoa musikariak azalpenak ematen entzutea.

Ez da ohikoa, ez, eta, egia esan, musikariok ez dugu larregi maite emanaldietan azalpenak ematea. Musika da gure adierazpidea, eta horretarako gaude gu prestatuta. Neuk egiten dut berba, eta askotan arduratuago egoten naiz azalpenengatik jo beharrekoagatik baino. Jendeak Arriaga nor izan zen jakin dezan lan hori egitea inportantea dela uste dugu. Esfortzu berezia egiten dugu horregatik.

Saxoa eta klarinetea jotzen dituzu emanaldi honetan, ezta?

Bai, saxo tenorra zein sopranoa eta klarinetea jotzen ditut. Ikasketak klasikoak klarineteagaz egin nituen, eta jazzarako aukera gehiago eskaintzen dituelako jotzen dut saxoa.

Botxo Boogies taldeagaz zelan hasi zinen jotzen?

Bilboko Paladium klubean kontzertu ugari antolatzen ziren sasoiak sortu genuen taldea –elkarregaz hamar urte egin ditugu aurtentzen–. Proposatutak ziguten swing eta rock-and-roll estiloan emanaldiak eskaintzea, eta eguenero han jotzeko sortu zen Botxo Boogies: 50eko hamarkadako musika jotzeko. Bi



Saxofoia eta klarinetea joko ditu Gonzálezek gaurko emanaldian.

urtez eskaini genuen eguenero emanaldia: eguenero amaitzen zen garagardoa! Gero taberna hori itxi zuten, baina taldeagaz jarraitu dugu –hasi ginen laukotea gara–. Izan ere, harreman oso ona daukagu musikariok, lagun handiak gara, eta taldeak musikalki ere oso ondo funtzionatzen du.

Bilbora joan zinen jazzean aritzeko esparruaren bila?

Zelanbait, bai. Esparru oso txikia da jazz, baina gaur egun, esango nuke sekula baino mugimendu handiagoa dagoela alor horretan, Euskadin. Musiken jazz ikasketak eskaintzen dituztela 10 urte dira, eta horrek ere eragin du: gero eta jende gehiagok jotzen du jazz, eta gero eta gehiago entzuten da. Badago susperraldi bat.

Musikaren zein esparrutan zabilta gusturen?

Onerako edo txarrerako –batzuetan alor batean espezializatzeak bere onurak dauzkalako– ezingo nuke esan zein den gusturen nabilen estiloa.

Musikenen jazz ikasketak egiten diharduzu. Zer moduz?

Beti gura izan dut ikasketak horiek egin, baina ez dut orain arte aukerarik eduki. Irakaslea

naiz Galdakaoko Musika Eskolan, eta ikasketetarako denbora ateratzea ez da erraza. Aurten amaituko ditut ikasketak, baina musikan beti zara ikasle: edozein maila duzula, beti dago zertan hobetu.

Musika klasikoan diharduzu irakasle. Jazz ukiturik ere ematen diezu zure eskolei?

Bai, musika eskolan aukera daukat ikasgai formalaz aparte, ikasleak bestelako alorretara gerturatzeko. Izan ere, musika klasikoan ikasketak badauzka muga batzuk: sarri, partitura barik jotzeko gaitasunik ez dute eskuratzen ikasleek, esaterako. Nire eskoletan saiatzen naiz txikiak direnetik inprobisa dezaten: adibidez, bluesa jota. Saiatzen naiz klasikoaren eta inprobisazioaren bi mundu horiek batzen, eta nik egiten eta gozatzen dudana hori erakusten.

Ekaineko Haizetara jaialdian parte hartuko duzu aurtentzen ere?

Iaz Haizetara jaialdiko *jam session* saioak koordinatzen aritu nintzen, eta aurtentzen ere bertan egongo naiz. Iaz bezala, formatu txikiko jazz kontzertuak izango dira Haizetara jaialdian datozen musikariek: libre aritzen dira musikariak saio horietan, eta oso giro polita sortzen da.



Duela hamar urte sortu zen Botxo Boogies laukotea, Bilbon.

> MUSIKA

Europako musika bandarik onena izendatu dute Durangoko Sugarri

Frantziako Armagnac eskualdean ospaturiko lehiaketan saritu dute taldea

> ITSASO ESTEBAN

Musika bandarik onenaren sari nagusia, zuzeneko emanaldi erakargarrienari eskainiriko saria eta musikaltasunari dagokion bigarren saria ekarri ditu

Durangoko Sugarri fanfarreak asteburuan, Frantzian, antolatutako lehiaketatik.

Europako hainbat herrialdeetako 35 musika taldek hartu du parte Frantziako Armagnac

eskualdeko Condom herrian buruturiko lehiaketan. Nazioarteko lehiaketa horren 42. edizioa izan da aurtengoa.

Joan zen zapatuan arratsaldean eta gauez jardun ziren mu-

sika bandak Condom herriko kaleetan zehar euren doinuak zabaltzen, eta lau agertokitan proba zehatzagoak egin zituzten domekan. Emanaldi horien balorazioan oinarrituta jaso ditu Sugarrik hiru sari.

Joseba Aparicio taldekideak sorturiko bi obra aurkeztu zituen Sugarrik lehiaketara: Tolosako Arco Iris elkartearen 75. urteurrenerako sortu zuten abestia eta The Police taldearen lau kantaren moldaketa.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

ikaslea



Leopoldo

Inor ez da hil denontzat. Egundo egon ez balitz bezala joan den Leopoldo Maria Panerok, hala ere, munduaren amaieran sinesten zuen: "Munduaren amaierako fantasia paranoikoaren barruan bizi naiz, eta ez da nik bertatik irten nahi ez dudala; aitzitik, besteak bertan sartu daitezene nahi dut".

Azken poeta *malditoa*, diote batzuek; beste batzuek nahia- go dute ez ezagutu, kaiolaratu, badaezpada. Astelehenero bizitzaren labarretik amilduz, eskerrak harentzat denborak ez zuen apetzako izenik.

Arrazionaltasuna eta "bide zuzenak" banatutako bi mundu, denon artean eraiki dugun alanbrezko hesia, ez bitez engaina, antzinako *moralejei* kasu gehixeago egin, eta behin engainatzen banaute haren errua da, bigarrenengainatzen banaute nik ere badut erantzukizuna. Beraz, ez dezagun pentsa hesi horren eraikuntzatik at gaudela, botererik ez dugulako indarra sobera dugu-eta.

Horrela giltzaperatu zuten Leopoldo, hobe da miseriaren gainetik erratza pasatu ikus ez dezaten. Kartzelak ez dira soilik espetxeak, bahituta edukitzeko modu asko daude; Sarrionandiaren oihartzuna belarri ostetik, "kartzelak, barruan ez daudenek kanpoan daudela pentsatzeko eraikitzen dira".

Baina helduko ei da iraultzaren eguna, eta Argentinako Maiatzeko Plazako andreak ere eredu izango dira, ez direlako ahanzturara makurtu amnesia derrigorreko garaiotan. Leopoldoren antzera, ordinariorik ateratzen dira eta horregatik ezkutatuazten dituzte.

Omenaldi ttiki bat bakarrik Leopoldori, bere lekukotasuna erotizatutako lengoaiaren plasmata dago, duintasunak duintasuna du zutabe. Leopoldo hil da! Gora Leopoldo! Hurrengo estatu-kolpera arte, bitartean ortzemugan trukatu-ko ditugu begiradak.



Duela hiru hamarkada sortu zuten Sugarri fanfarrea Durangon.

Europako hainbat herrialdeetako 35 musika taldek hartu dute parte banden lehiaketan

Iazko Zornotzako Haizetara kale musikarien lehiaketan 4.000 euroko entzuleen saria jaso zuen Sugarri fanfarreak, Durangoko musika bandako hainbat musikaririk duela hiru hamarkada inguru lagunartean sorturiko fanfarreak.

> BERBALDIK

Berbaldi zikloa: 'Vasconia Erromatarren garaian'

Arkeologia eta Historia jardunaldien V. edizioa hartuko du Durangoko Arte eta Historia Museoa. Atzo zabaldu zuten hitzaldi zikloa; erromanizazioaren hasierako aldiaren Kantauri itsasoaren ekialdeko herrialdeetan jazotako aldaketa prozesua ikertzeko arkeologiak ematen dituen datuen inguruko berbaldia eskaini zuen Juan José Cepeda UNEDeko irakasleak.

Mertxe Urteaga Irungo Oiaso museoko arduradunak *Meatzaritza erromatarra baskoien eremuan* izenburuko hitzaldia eskaini du zikloko bigarren hitzorduan: datorren egunean, maiatzaren 22an. Elena Torregarai EHUko irakasleak *Sexua Erroman, mitoa eta errealitatea* berbaldiagaz itxiko du zikloa maiatzaren 29an.

> ANTZERKIA

Gazteek Zugan Ni ekimenean sorturiko obren emanaldiak

Iurretan, Elorrion eta Zornotzan eskaini dituzte asteon, Zugan Ni ekimenearen barruan, Durangaldeko gazteek sorturiko antzezlanak. Berrizko Kultur Etxean eta Durangoko San Agustin kulturgunean egin zituzten gazteek eurek sorturiko obren emanaldiak joan zen asteburuan, eta Igorren eta Iurretan aritu dira aste honetan.

Gazteek antzerkigintzara gerturatzeko asmoz Markeliñe antzerki taldeak sorturiko ekimena da Zugan Ni; zazpigarren aldian du aurtengoa, eta 110 gazte hartu dute parte.

Maiatzaren 18an, Zornotza Aretoan egingo dute ikasturte amaierako jaia. Zornotzako, Igorreko eta Iurretako taldeen emanaldiak, eta sarien banaketa egingo dituzte ekitaldi horretan.

> ARGAZKIGINTZA

Jimenezen tailerraren balantze oso positiboa

Joan zen asteburuan, Elorrion egin zuten tailerra

Irudi baten bihotza izenburuko tailerra gidatu du David Jimenez argazkilariak (Sevilla, 1970) Iturri kultur etxean. Lehenengo aldian da horrelako ekintza bat antolatu duena Elorrioko argazki elkarteak, eta 27 parte-hartzaile izan ditu. "Lehenengo edi-

zioaren emaitza ikusita, guztiz motibatuta gaude jarraitzeko", esan dute antolatzaileek.

Hiru zatiko ikastaroa izan da I. ElorriPhoto ekimena. Argazkigintzan ikuspuntuak, espazioak eta argiak daukaten garritiaz jardun ziren, besteak beste.



27 lagunek hartu dute parte Iturri kultur etxeko ikastaroan.

Kurutziaga Ikastolako Antzerki Taldea
Itsas hondoko eskola
 Maiatzaren 16an - 22:00etan
 Maiatzaren 17an - 22:00etan
 San Agustin KULTUR GUNEA
 DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
 www.plateruena.net
 MAIATZAK 16 - 21:30ean **DOAN**
DURANG(H)OTS JAM SESSION
 MUSIKA KONTZERTUA
 MAIATZAK 21 - 20:00etan
DF BERTSOZALE ESKOLA
 ELKARRIZKETA
 MAIATZAK 23 - 22:00etan **3euro**
3.GREATEST HITS GAUA
 MUSIKA KONTZERTUA
 Eguneko menua astelehenetik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu

deitu!



946 217 902

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIA



**8TN
HONDEAMAKINA**

gomazko beldarrak

ALKIMAX

**ADAR-
BIRRINTZAILEA**

8 zentimetro raino



ALKIMAX

**ENBORRAK
ZATITZEKO MAKINA**

Elektrikoa
Monofasikoa



ALKIMAX

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 946 824 550 • alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



> **ANTZERKIA**

Auzotarrentzako emanaldian aurkeztuko dute '7 aulki' antzezlan

Zelaietako probalekuan eskainiko dute saioa, gaur

> **ITSASO ESTEBAN**

Traña-Matienako sanprudentzioetan eskaini zuten *7 aulki* antzezlan, lehenengoz. Zelaietako 26 gaztek osaturiko antzerki tailerrean sortu zuten obra. Bete egin zen Errota kultur etxea gazteek sorturiko obra ikusteko, eta bigarren antzezlan dute gaur, Zelaietako jaietan, 22:00etan, probalekuan. "Traña-ko lehenengo emanaldiagaz pozik" daudela esan du taldea gidatu duen Eñaut Uruburuk, baina "hobetu daitezkeen gauzak zuzentzeko" asmoa dutela ere azpimarratu du.

Uruburu abadiñarrak idatziriko gidoia dago antzezlanaren oinarrian, abadiñarrez idatzirikoa. "Zaindu gura izan dut hizkuntzaren arlo hori, besteak beste, gazteei herriko hainbat esaera ezagutu eta erabiltzeko aukera ematen dielako". Entzuten den moldean idatzi du Uruburuk: "Iruditzen zitzaidan oholztan esango duten bezala irakurtzeko erraztu egingo zela

lana, ez nuen nahi nik euskara batuaz idatzi eta eurei abadiñarrez egiteko eskatu". Hizkuntzarekiko, berbekiko Urubururen zaletasunak eta jakin-minak badu obraren testuan islarik.

"Egitasmo polita izan litekeelakoan" proposatu zuen Eñaut Uruburuk antzerki tailerra martxan jarri ahal izateko aukera, eta gazteen aldetik jasotako erantzunak harritu zuela kontatu du: "Ez nuen horrenbeste jendek izena ematerik espero".

Uruburu gidoigilearen hizkuntzarekiko zaletasunak badu antzezlanean bere isla

Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko Zelaietako eta Abadiñoako beste auzo batzuetako 26 ikasle elkartu dira proiektuan: 12 eta 17 urte arteko gazte abadiñarrak. Antzezlan moldatu



Abadiñoako 23 gaztek dihardute '7 aulki' obran aktore lanetan.

egin dute denen artean, lantalde hain handiagaz landu ahal izateko: hasierako gidoian aurreikusi bako hainbat pertsonaia sortu dituzte, eta erronka handia izan da; muntaia guztia pentsatu eta gauzatzea ere erronka izan da. Taldekide guztien artean aurrera ateratako erronka.

Umoretik adina dauka dramatik eta seriotik *7 aulki* antzezlanak. Ageriko mezurik ez, baina topatu gura duenarentzat mezu sakoneko obra da. "Alde komikoagaz, anekdotikoagaz

geratu gura duenak ederto pasako du, baina bestelako edukirik bilatu gura duenak interpretazioak egiteko aukera du".

Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko 26 ikasle elkartu dira '7 aulki' proiektuan

Duela hamarkada bat inguru Mikel Azkarragak idatziriko lau

antzezlan oholztaratu zituzten herriko hainbat gaztek, eta talde horretan jardun zen Eñaut Uruburu ere. Abadiñoako gaiak, bertako leku izenak, herriko pertsonaiak, Abadiñoako istorioak eta historia zatiak kontatu zituzten duela 10 urte. Aurten bera baino gazteagoentzako tailerra gidatzen aritu da Uruburu, eta *7 aulki* obrak ere egiten dio erreferentziarik Abadiñori. Beste edozein lekutan koka litezkeen metafozez osaturiko istorioa da, hala ere, Uruburuk idatzitakoa.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 24 • 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh

gmhz.mgép@mondragon.edu

943 73 97 65



Kirola

Iñigo Astarloa | Elorrio, 1970 | Elorrioko Buskantza taldeko futbolaria |

“Defentsa gogorra izan naiz, Goikoetxearen modukoa”

Iñigo Astarloa elorriarrak areto-futbola utzi du, eta bere taldekideek omendu egin dute



> MARKEL ONAINDIA

Buskantzako taldekideek errealitateko kamisetagaz agertu da elkarrizketara Iñigo Astarloa, 'Astar' futbolariaren artean. 'Zure izaera gure eredu' leloa irakurri daiteke bertan. Beteranoa izan arren, gazteekin parez pare ibili da lehiatzen. Defentsa gogorra izan dela dio, baina futboleko baloia edukita jokatzeko gustatzen zaio. 44 urte gaz, lesioen eraginez, areto-futbola uzteko erabakia hartu behar izan du. Hori bai, seguru laster beste kirolen bat praktikatzera ausartuko dela, ez da geldirik egotekoa eta. Joan zen asteburuan jokatuak neurketan omenalditxo egin zioten taldekideek.

Zelakoa izan zen taldekideek eskainitako omenaldia? Eurak Txapeldunen Ligako jokalarien estilora irten ziren kantxara. Nigana etorri eta ka-

miseta eman zidaten. Detalle polita izan zen eta pozik nago. Gainera, Bilboren kontra jokatu genuen. Lehenengo euren sartu zuten gola, gero berdinketa... Azkenengo gola sartzean niregana etorri ziren taldekideak.

Futboleko eta areto-futboleko ibilbide luzea duzu; tartean, lesio ugari eduki duzu, gainera. Elorrioren egon nintzen lehenengo futboleko jokatzeko, eta belauna dislokatu nuen. Donostian ebakuntza ona egin zidaten, eta zuntzeko lotailuak ipini zizkidaten. Gero, Berriz lotailu gurutzatua apurtu nuen. Hango bat Durangoko Sasikoan zegoen, eta gura banuen, joateko esan zidan. Hamar urtez egon nintzen Sasikoan. Baina ume bi dauzkat, Durangora joateko sekulako auto-ilara egoten da [barrez]... Elorriarrak beti neuzkan etortzeko esanez. 39 urte gaz etorri nintzen eta 44 dauzkat.

Urte batzuetan, jokalaria eta entrenatzailea izan zara Elorrioren.

Bai, jokalaria-entrenatzaile ibili izan naiz. Urte batzuk politikak izan ziren, baina urte oso txar bat ere eduki genuen. Galtzen hasi ginen, entrenatu barik, lesioekin, eta mailaz bajatu ginen. Baina azken urteetan tituludun entrenatzailea eskatu izan digute, eta orain Iker Saenz daukagu. Igo egin ginen berriro, eta aurretik bosgarren gaude.

“Elorrioren egon nintzen lehenengo futboleko jokatzeko, eta belauna dislokatu nuen”

Zelan baloratzen duzu aurretiko denboraldia?

Maila honetan bosgarren geratzea ondo dago, talde beterranoak daude eta. Baina nik uste dut hobeto ibiltzeko taldea daukagula. Hala ere, futbol polita egin dugula uste dut.

Zer duzu gustukoago? Futbola edo areto-futbola?

Areto-futbola. Asko gustatzen zait, larregi agian. Ezagun batek ere esan zidan areto-futboleko jokatzeko botatzen duzuna ez duzula beste kirol batean botatzen. Jokatzeko zabiltean ez daukazu buruan hurrengo egunean lanera joan behar duzula.

Zein estilo izan duzu gustuko?

Zabaldu, ukitu, jokatu, paretak egin... Sasikoan oso talde ona geneukan. Beti zen baloia guki edukitzea, ukitzea... Elorrioren etorri nintzen ere Iñaki Duñabeitia zegoen, sekulako kalitateagaz. Berari ere baloia edukitzea gustatzen zitzaion. Horrela oso gustura ibili izan naiz.

Kanpotik begiratuta, lagun giroko kirol bat dela ematen du. Baina zu ibili zaren mailetan hori gaintu egiten da?

Prestatu egin behar duzu. Jokalari onak behar dituzu goiko mailetan ibiltzeko. Gainera, gero eta gorago egon, gero eta diru gehiago behar da. Hori bai, kalitatea eta prestakuntza ona badauzkazu, gero lau ideia bakarrik dira. Areto-futbolak azkenean lau kontzeptu ditu.

Baina zaletasuna dago oinarrian, ala?

Batzuetan esaten da jokatzeko baduzu, ondo dagoela. Baina jokatu eta irabazten baduzu, itzel geratzen zara. Ez naiz profesionala izan; dibertitu egiten naiz, lagunak dauzkat han eta hemen... Irabazteko gustatzen zait, baina baloia ukitututa.

Entrenatzaile ere ibili izan zara. Aurrerantzean ere zeure burua zeregin horretan ikusten duzu?

Niri txikiak entrenatzea gustatuko litzaidake. Adibidez, Athleticeko ikusten duzu jokalaria bat lehenengo mailan jokatzeko dabilela eta ez dakiela ezker-erregaz baloia jotzen. Egunero ezker-erregaz hasten badira, pixkanaka-pixkanaka ikasiko dute.

Nagusia entrenatzea ere, talde ona edukiz gero, bada, izan ahal da. Baina ez daukat titulurik eta gaizki daukat ateratzeko. Izan ere, beharrez hiru errelebotara nabil eta ume bi dauzkat. Umeei irakastea da nire asmoa, txikitatik baloia edukitzea ideiaz. Gaur egun, zenbat eta gorago, umeak irabaztera doaz. Gurasoak ere han daude, eta potolotxo bat egoten bada, galdetzen dute ea zergatik jokatzeko duen horrek...

“Ez naiz profesionala izan; dibertitu egiten naiz, lagunak dauzkat han eta hemen...”

Zu baino gazteagoen kontra jokatu duzu sarritan. Igarri duzu adinaren aldea?

44 urte gaz eta Hirugarren Mailan ondo ibili naiz jokatzeko gazteekin. Defentsa gogorra izan naiz, Goikoetxea lakoa, lurrera botatzeko. Aurreko batean, aforian, taldekide batek komentatu zuen: “Imajinatu Astar aurkariaren taldean. Nekatu egingo zintuzke!”. Batzuek bai, baina jende gutxi egin dit ihes.

Lesioen erruz utzi behar izan duzu areto-futbola. Pena sentitu duzu?

Bai. Nire asmoa B taldera joateko zen, era lasaiagoan jokatzeko. Baina martxoan lesionatu egin nintzen: entrenamendu batean lau aldiz segituan ibili nintzen zelaian gora eta behera, eta keinu txar bat egin nuen belaunagaz. Nik badakit ondo ipiniko naizela, baina, noski, jada ez daukat meniskorik. Hezurra hezurragaz igurtzen da, eta hor gauza bi gertatu ahal dira: kailua egitea, ona dena, edo gasatzea. Akordatzen naiz lehen zelaian jokatzeko gurela, mendian ibili nintzen lanean, eta orain, aldiz, zortzi ordu zuntik egoten naiz fabriketan: eta adin honetan...

“Umeei irakastea da nire asmoa, txikitatik baloia edukitzea ideiaz”

> AUTO LASTERKETA

Zapatuan rallysprinta izango da Zornotzan, eta domekan eslaloma Abadiñoako Astola auzoan

Euskal Herriko auto gidaririk onenak batuko dira Zornotzako eta Abadiñoako lasterketetan

> JOSEBA DERTEANO

Auto lasterketa zaleek hitzordu bikoitza dute asteburuan, Durangaldean. Zapatuan Zornotzako II. Rallysprinta lehiatuko dute Gorka Antxustegik eta enparauek, eta domekan eslalom proba bat egongo da Abadiñon.

Zornotzako proba Gernika Racing Elkartek antolatuko du eta Euskadiko zein Bizkaiko rallysprint txapelketetarako puntuagarria izango da. Parte-hartzaileen bilgunea Zelaieta parkea izango da. Gidariekin 7,58 kilometroko ibilbide bati (Etxa-

notik, San Migueletik eta Eubatik) hiru pasada emango dizkiote; 15:00etan irtengo da lehen autoa Urritxe institutu paretik; sari banaketa 20:45ean izango da. Modalitateko piloturik onenak batuko dira, eta irabazteko hautagaien artean Gorka

Antxustegi (Peugeot 205), Iban Tarsicio abadiñarra (Mitsubishi EVO IX), Aingeru Castro (BMW M3) eta Joxe Labaka (Mitsubishi EVO V) daude.

Aurten, lehenengoz, Sport Erregularitasuna modalitateko auto klasikoek ere parte hartuko dute. Modalitate horretan iazko txapelkunorde Asier Santamaria da faborito nagusia; Aitor Carrocera eta Manu Bilbao ere garaipenaren borrokan ibiliko dira.

Domekan Abadiñoako Astola auzoan izango den eslaloma Durangalde Racing Elkartek antolatu du. Euskadiko Esalom Txapelketako lehenengo proba izango da, eta 25 parte-hartzaile inguru izango ditu. Iaz proba eta txapelketa irabazi zituen Victor Calvo gasteiztarra (Citroen AX) da aurten ere faborito nagusia, baina sorpresa emateko aukerakin daude Asier Tejado Mallabian bizi den dimoztarra (BMW 325) eta Raul Pérez portu-galetetarra (BMW 325). Hirurek Durangalde Racing Elkartegaz lehiatzen dute.

ADITUAREN TXOKOA



Kepa Arroitauregi

Pilota

Bidea eginez

Aipatuko ditudanak oso ezegunak, arrotzak suertatuko zaizkio askori, ez baita telebista, irrati eta egunkarietako pilota jarraitzailea baino izango. Hori horrela bada, ezagutuko ditu Aimar, Irujo, Berasaluze II... eta beraiek jokatzen duten jokamoldea, euskal pilotaren jokamolde izarra, alegia: ezker horma. Pala eta zesta-punta jokoak ere ezagunak egingo zaizkio, baina trinketea oso arrotza egingo zaio, ez baitu ezagutuko apenas.

Pilota pixka bat barruragotik ezagutzen duenarentzat, ordea, trinkete joko ez da arrotza izango, ez horrenbeste behintzat. Iparraldean maila gorena duen euskal pilotak azken urteetan bidea egin du Bizkaian, batik bat Abadiñoako Tornosolo trinketea egoitza nagusitzat hartuta.

Hori esanda, aipatzekoa da bertako pilotari zenbaitek (Gonzalez, Uriarte, Antxia...) Bidasoaz bestaldeko pilotari handienekin batera lehiatzeko bidea egina dutela. Eta horien atzetik dabiltzanek bidea egiteko bitartekoak jarrita daudela ikusteko aukera daukatela ere bai. Eta txikienez ere ezker hormaz aparte beste bide bat egiteko aukera ere badagoela. Alegia, pilotan murgildu nahi duenarentzat biderik badela, eta ez bakarra. Apurka bidea egiten gabiltza, hain gustuko dugun kirolean ate berriak zabalduz, bide berriak eraikiz...

Horren lekuko da asteen jokoan den eta asteburu honetan jokatuko den San Trokaz Txapelketa.



Zornotzako probak 65 bat parte-hartzaile izango ditu. Borja Basterrechea.

> SASKIBALOA

Faboritoen kontra hasiko du iguera fasea Tabirakok

Gaur Salamancaren aurka jokatuko du

Gaur hasi eta domekara bitartean Tabirako Baqué emakumeen talde nagusiak Emakumeen 2. ligarako iguera fasea jokatuko du Salamancan. Lau talde ibiliko dira igotzeko borrokan: Tabirako Baqué, Donosti Basket Bera Bera, Universidad de Salamanca eta Lourenza taldeak. Tabirakok gaur jokatuko du lehen partidua, 20:00etan, Universidad de Salamanca etxeko taldearen aurka. Salamanca-k taldea da igotzeko hautagai nagusia eta badu esperientzia

horrelako txapelketetan; laugarren bider jarraian parte hartuko du.

Era berean, Tabirako Baqué gizonen talde nagusia EBA mailarako iguera fasea jokatuko sailkatu da, joan zen asteburuan Padurari irabazita.

Juniorrak Zornotzan

Tabirakoko juniorrek Bizkaiko finala jokatuko dute asteburuan, Zornotzan. Lauko final horretan Unamuno, Leioa eta Loiola Indautxu ere arituko dira.

> PALETA

Bizkaiko eskolartekoan txapelkun elorriarrak

Joan zen zapatuan Bizkaiko Eskolarteko Paleta Txapelketako finalak jokatuko zituzten Balmasedan, eta Elorrioko bikote bik jantzi zuten txapela. Alde batetik, June Ugaldeak eta Jaione Escribanok Zeanuriko bikotea menderatu zuten; Inge Fondadok eta Elene Ugaldeak ere beste hainbeste egin zuten Areatzako bikoteagaz. Denboraldi osoan ez dute partidurik galdu.



hitz liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

<p>HELDUENTZAT APIRILA Iñigo Aranbarri</p>	<p>UME ETA GAZTEENTZAT AMAIA. EUSKALDUNAK VIII. MENDEAN F. Navarro Villoslada</p>	<p>MUSIKA INSTRUAK VOL.3 Joseba B. Lenoir</p>
--	---	---

A. Urreta podologoa

Abinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 · DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.F.S. 21406

JAR ZAITEZ MARTXAN

16 ETA 29 URTE ARTEKO
GAZTEENTZAKO PROGRAMA

ENPLEGURAKO ORIENTAZIO
ETA LAN GAITASUNEN ARLOKO
PRESTAKUNTZA

- Gaitasun profesionalak garatzea: motibazioa, komunikazioa, lidergoa, erabakiak hartzea, gatazkak konpontzea, taldeko lana, giza trebetasunak, etab.
- Enpleguaren bilaketa aktiboa eta bilaketa tresnak.
- Langileak hautatzeko tresnak.

ENPRESAK SORTZEA

AHOLKULARITZA

- Baniakako tutoretza eta laguntza negozio ideia edo proiektuetan.
- Aholkularitza merkataritza, finantza, zerga eta lan arloetan.
- Doako ekintzailertza gelak: lanerako eta bilerak egiteko espazioak Internet konexioarekin.

LAGUNTZAK

- Gizarte segurantzako kotizazioak finantzatzeko zuzeneko laguntzak.

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA

Behargintza (Durangaldea)

T. 946 232 522 / behargintza.mdurango@bizkaia.org

Ametx Erakunde Autonomoa (Amorebieta-Etxano)

T. 946 300 650 / gazteria@ametx.net

Fundación Izarra Fundazioa (Ermua)

T. 943 177 159 / proyectos@fundacionizarra.eu

> **FUTBOLA**

Hirugarren Mailara igotzen saiatzeko final bi ditu aurretik Iurretakok

Partidu biren faltan hiru puntura du igoera zuzena; promozio postua baliatzeko Hirugarren Mailako talde euskaldunetako batek igo egin beharko luke



Iurretako futbol taldeko jokalariek Larrakozelaian, eguaztenez egindako entrenamenduan. Kepa Aginako.

> **JOSEBA DERTEANO**

Ohorezko Maila amaitzeko partidu biren faltan, Iurretako futbol taldea Hirugarren Mailara igotzeko borrokan dabil. Igoiko balitz, taldearen historian aurrekaririk ez duen lorpena litzateke, eta Durangaldeko ordezkari nagusia izatea partekatuko luke Durangoko Kulturalarekin. Saria handia eta eskuragarria da, baina hainbat baldintzek bat egin behar dute horretarako.

Iurretako bigarren dago sailkapenean. Ohorezko Mailan talde bakarra igoko da zuzenean, eta Santurtzik betetzen duen postu hori hiru puntura du. Beraz, Santurtzik huts egin beharko luke, zuzenean igotzeko aukerak izateko. Baldintza hori betetze ez bada, Iurretakok pro-

mozioa jokatuko luke, beti ere bigarren tokiari eusten badio; eta ez da erraza izango, Erandio, Somorrostro eta Getxo orpo orpo dituelako. Era berean, promozioa baliatzeko beharrezkoa litzateke Hirugarren Mailako playoffa jokatzen dabilzan lau talde euskaldunetako batek igoera lortzea.

Iaz talde igo berria zen Iurretako eta, hala ere, azken lau jardunaldietara igotzeko aukerakin heldu ziren; baina lau partidu horiek galdu egin zituzten. Taldeak hainbat jokalar berri ditu aurten, baina dinamika berari eustea lortu du: "Ilusio handia dugu eta erantzukizunari aurre egiteko prest dago taldea. Presiorik ez dugu, presioa aurrekontu askoz indartsuagoa duten Santurtzik edo Somorro-

strok dute", adierazi du Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak. Zapatuan, 17:00etan, jokoan ezer ez duen Apurtuarte hartuko du taldeak Larrakozelaian.

> **Elorrio, mailari eutsi guran**

Elorriok hirugarren denboraldia du Ohorezko Mailan eta jaitzeko arriskuan dago. Geratzen diren partidu biak arerio zuzenean aurka ditu (Baskonia B eta Loiu), eta bietan irabaziz gero, mailari eusteko aukera handiak izango lituzke.

Denboraldi gorabeheratsu baten ostean -jokalariek lesio asko izan dituzte-, sasoi onean heldu da azken txanpara. Azken bost partiduetan hiru irabazi eta bi berdindu ditu. Bihar arratsaldean ere hiru puntuak lortu behar ditu Baskoniaren etxean.

> **TXIRRINDULARITZA**

Gorostiza eta Agorria Bizkaiko txapelkun

Joan zen asteburuan Durangaldean jokatutako Bizkaikoloreak Klasikoan Bizkaiko txapelak izan ziren jokoan; kadeteetan Aroa Gorostiza elorriarra (CAF Engineering) eta gazteetan Olatz Agorria zornotzarra (Beste Alde-Orue eskola) izan ziren lehenengo bizkaitarrak, eta eurek jantzi zuten txapela. Nagusien mailan Bizkaia-Durango taldeko Anna Ramirezek irabazi zuen lasterketa, eta Leire Olaberria hirugarren sailkatu zen.

Bestalde, Otxandion, erlojupeko Euskadiko Txapelketan bigarren geratu zen Maialen Aramendia (CAF Engineering) kadete mailan.

> **MENDI LASTERKETA**

Azkorbebeitiak Izarraitz mendi proba irabazi du

Durangoko txirrindulari elkar-teak 16 urtera arteko gazteei zuzendutako Bizikleta Eguna antolatu du domekarako Ezkurdin. Ekimenak gazteen artean bizikletarako zaletasuna sustatzea du helburu. Askotariko ekin-tzen artean lasterketa bi egongo dira, sei (7-10 urte artekoentzat) eta hamabi (10-16 artekoentzat) kilometroko bana. Proba laburra bidegorritik zehar izango da eta luzea Abadiñoko Gaztelua auzotik. Proba biak 11:00etan hasiko dira Ezkurdin. Izen-ematea doakoa da eta egunean bertan egin daiteke, 10:00etatik aurrera. Proben ostean, jokoak, jinkana eta zozketak egingo dituzte.

> **AGENDA**> **FUTBOLA****LEHENENGO ERREGIONALA****Berriz - Galdakao**

· Domekan, 11:30etan, Berrizburun.

Elorrio - Gatika

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

BIGAREN ERREGIONALA**Txapelkunak:****Ezkurdi - Menes**

· Zapatuan, 17:00etan, Arripausuetan.

Laugarren sailkatuak:**Iurretako B - Salesianos**

· Domekan, 11:00etan, Larrakozelaian.

> **ARETO FUTBOLA****MAILA GORENA****Sapuberri - Ibaizabal**

· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.

Elorrioko Buskantza B - Sasikoa B

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Presion Break - Gramol

· Zapatuan, 16:40an, Berrizburun.

LEHENENGO ERREGIONALA**Abadiñoko Gaztetxe - Hegalariak**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

BIGAREN ERREGIONALA (2. fasea)**Mallabia B - Elorriko Txiki**

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

> **SASKIBALOA****BIGAREN ERREGIONALA (1-10 postuak)****Zornotza - Julza Zaldia**

· Domekan, 17:00etan, Izerbekoa kiroldegian.

Tabirako Baqué - Beotibar Begoñazpi

· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

> **UDAKO CAMPUSA**

Udako eskolak futboleant eta saskibaloian aritzeko

Durangon eta Iurretan gazteentzako eskaintza dago

Gaztetxoei begirako udako campu bana antolatuko dute udan Tabirako Baqué saskibaloian eta Gertasport enpresak futboleant. Durangon eta Iurretan izango dira, hurrenez hurren.

Gertasportek ekainaren 23tik uztailearen 11ra eskainiko du Iurretako Larrakozelaian futbola oinarri duen Etorkez Kanpusa eta 2002-2009 urteen artean jaiotako gaztetxoei bideratuta dago. Ekainaren 15era artekoa da izena emateko epea (www.gertasport.com). Iazko lehen alditik hona hainbat berrikuntza egin dituzte. Alde batetik, atezaintzako berariazko entrena-

mentu saioak eskainiko dituzte eta ingeles eskolak emateko begirale bat ere egongo da. Gainera, Athleticen jokalariren batek bisitatuko du campusa.

Bestetik, Tabirakoren campusa ekainaren 23tik uztailearen 4ra izango da eta 7-14 urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago (www.tabirako.com). Gaztetxoek saskibaloiaz gozatzen duten bitartean euren gaitasunak hobetzea da helburua. Entrenatzaile guztiak Tabirakoko jokalar edo entrenatzaile dira. Aisialdirako eskaintza zabala ere eskainiko dute: tenisa, igeriketa eta filmen emanaldiak, adibidez.

> **ERRUGBIA**

Astarloa Gernika Rugby Taldeko entrenatzaile

Oscar Astarloa elorriarrak gidatuko du Gernika

Oscar Astarloa elorriarra da Gernika Rugby Taldeko entrenatzaile berria. Bere ondoan egongo dira Kemen Goitandia, bigarren entrenatzaile moduan, eta Eduardo Lekunberri, presatzaile fisiko gisa. Astarloak errugbian izan duen ibilbide oparo eta luzea azpimarratu dute Gernikako arduradunek klubaren webgunean.

Jokalariei dagokienez, aurtengo blokeari eustea erabaki du zuzendaritzak: besteak beste, Iker Olaetak, Mathew Foldsek eta Mua Salak Gernikagaz jokatzen jarraituko dute. Beraz, Astarloak aurtengo talde bera izan-

go du bere aginduetara datorren denboraldian, eta apurka gazteei aukera ematea da asmoa. Helburu nagusia Ohorezko Mailari eustea eta taldea pixkanaka maila gorenean finkatzea da.

Astarloak ibilbide luzea izan du errugbian. Getxo Rugby Taldeagaz debutatu zuen, eta gero Frantziako ligara joan zen. Han Donibane Lohitzune eta Aviron Bayonnaise taldeekin jokatu zuen. Frantziako ligatik bueltan, Ordizia, Bera Bera eta Gernika taldeetan jokatu zuen hainbat denboralditan. Munduko Txapelketa bitan ere parte hartu du.

> **ZESTA**

Euskal astea zesta torneoa hasiko dute etzi

Pilota Federazioak antolatzen duen zirkuituaren barruan, Euskal Astea Torneoa hasiko dute domekan Durangon. Uztailean eta irailean Markinara eta Mutrikuaren ere jokatuko dira partiduak. Puntu gehien ateratzen duten pilotariek Markinan jokatuko dute finala, aurtengo urriaren 11n.

Guztira 46 pilotarik parte hartuko dute txapelketan eta maila nagusikoek ez ezik, kadete eta gazte mailako partiduak ere jokatuko dituzte. Durangoko torneoko lehiak domeka honetan hasiko dituzte. Finalak ekainaren 7an jokatuko dituzte, Durangon.

Eraikin berria inauguratuta, aro berri baten aurrean da Ibaizabal ikastola



Hamar gela berri dituen 1.000 m²-ko eraikina inauguratuko du Ibaizabalek bihar, zapatua, 11:30ean



Aintzane Azpiazu (Zubi Zahar), Aimara Arostegi (Andra Mari), Amaia Gutierrez (Txintxirri), Idurre Maortua (Ibaizabal) eta Urko Rodriguez (Kurutzia).

> JONE GUENETXEA

Ibaizabal ikastolak eraikin berria inauguratuko du bihar, 11:30ean. 1.000 metro koadroko eraikinean hamar ikasgela berri egokitu dituzte. Era berean, bulegoak eta jantokia handitu dituzte. Idurre Maortua zuzendariak azaldu duenez, “ikasle kopuruak gora egin duen honetan, ikastolak espazio beharrari erantzun gura izan dio”.

Ibaizabalek 1999-2000 ikasturtean zabaldu zituen ateak batxilergo ikastera joandako 35 ikaslegaz. Bost ikastolek bultzatu zuten proiektua: Durangoko Kurutzia, Zornotzako Andra Mari, Elorrioko Txintxirri, Lekeitioko R.M. Azkuek eta Ondarroako Zubi Zaharrek. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko etapa eskaintzen zuten ikastetxe horiek, eta

eskaintza hori ikastolen hezkuntza proiektuaren barruan zabaltzea izan zuten helburu. Eraikin berriagaz “aro berri baten aurrean” daudela azpimarratu dute sei ikastetxeetako zuzendariak.

Ibaizabalen arrakastaren giltza hezkuntza ulertzeko duen modua da. Ikaslea da ardatza, eta ikaslea gustura badago, bere buruarekiko segurtasuna eta konfiantza sentitzen baditu, ikasketetan aurrera egingo du. Gertukoa da eta hurbileko giroa sortzen da; alde batetik, ikastola txikia delako, eta, bestetik, horretarako bideak jartzen dituztelako. Gainera, tutoreak jarraipen estua egiten dio ikasleari bere ikasketa ibilbidean, eta zubi lana ere egiten du ikaslearen eta bere familiaren artean. Konfiantza giroa sortzeko lagungarri

dira arlo akademikotik kanpo antolatzen dituzten ekintzak: besteak beste, irteerak, jaial-

ikasle kopuruak gora egin duen honetan, ikastolak espazio beharrari erantzun gura izan dio

diak, tertulia pedagogikoak eta aldizkaria.

Gaur egun, Ibaizabalek batxilergo, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa eta heziketa ez-arautuko hainbat ikastaro eskaintzen ditu. 35 ikaslerekin abiatutako proiektuak, gaur egun, 250 ikasle ditu. Oinarrian dituen ikastoleko ikasle kopuruak goranzko joera duela

ikusita, matrikulazio aldetik aurreikuspenak onak dira. Azken urteotan gaitasun profesionala ematen duten ikastaroak eskaintzeari ekin diote. Ildo horretatik, 2013an *Mendeko pertsonen gizarte eta osasun arreta ematea* eta *Ur instalazioetarako sorospena* ikastaroak eskaini dituzte. Ikastaro horiek 370 eta 290 ordukoak dira, hurrenez hurren, eta lanerako titulu homologatuak eskaintzen dituzte.

Ibaizabalen sorrerako asmoetako bat Lanbide Heziketa euskaraz eskaintzea izan da. Izan ere, lan mundua euskalduntzeko ezinbesteko baldintza da lanerako prestakuntza ere euskaraz eskaintzea.

Ikasleak gustura dauden seinale da batxilergoko ikasleentzat jatorria: ikasleentzat %40 datoz Durangotik. Gainerakoak, Galda-

kaotik, Zornotzatik, Elorriotik, Abadiñotik, Ermutik eta Ondarroatik datoz. Haur Hezkuntzako ikasleentzat, berriz, zabalagoa da. Izan ere, batxilergo amaitu duten ikasleentzat, beraien ibilbide profesionalen bide berri bat abiatu gura duten hainbat ikasleek dihardute.

Errota finantzazio iturri

Ikastolak sorreratik izan dira bide urratzaileak euskarazko hezkuntza eskaintzen eta eredu eleanitzak martxan jartzen, adibidez. Ibaizabal ikastolak argi zuen ekimen berriari heldu ahal izateko autofinantzazioa lantzea garrantzitsua zela. Horretarako Errota kafetegia, gimnasioa eta ostatu-aterpetxea ditu martxan. Jarduera horiekin helburu bikoitza du ikastolak: lana euskaraz egin daitekeela erakustea eta hezkuntza egitasmo berriak indartzeko baliabideak lortzea.

Bide berriak urratzen

Konpetentzietan oinarritutako metodologia aplikatuta, hurrengo etapara begira ondo prestatutako ikasleak trebatzea da Ibaizabalen erronketariko bat. DBHn ikastolak lantzen diren EKI egitasmoak integratzearen pedagogia du ardatz. Ikasle trebeak, hau da, bizitzako egoerei eraginkortasunez aurre egiteko ahalmena dutenak prestatzea da helburua. Bide horretan, arloko baliabideak nahitaezkoak dira, baina beste urrats bat ematea beharrezkoa da, ikasitakoak antzerako ezagueriak dituzten egoeretan erabiltzen jakiteko.

Batxilergoan Ibaizabalek erronka bikoitza du. Alde batetik, EKIrako ohitutako ikasleei erantzun beharko dielako, baina, bestetik, batxilergoaren ostean dagoen hautapenarako egoki prestatu beharko dituelako ikasleak. Horri begira gogor dihardute lanean Ibaizabaleko profesionalak.



Igor Igartua

Arreta soziosanitarioko ikaslea
Bilbo

“Lan merkatutik kanpo urte asko eman ondoren, ikastaro honi esker gustuko lana aurkitu ahal izan dut”



Olatz Izarzelai

Haur Hezkuntzako ikasle ohia
Durango

“Ibaizabalen HH ikasi izanagaz pozik nago, profesionalki ate berriak ireki dizkidalako”



Alain Barañano

Batxilergoko ikaslea
Zornotza

“Ibaizabalen familia giroa aurkitu dut, eta hori lagungarri izan da ikasketetan aurrera egiteko”

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 17an, 22:30ean,
Berrizko Hiltegeixe gaztetxean

Han + Ghetto

Han eta Ghetto taldeen emanaldiak lotu dituzte, Berrizko gaztetxean, bihar gaueko zuzeneko musika emanaldirako. 'Evolution' diskoa aurkeztu berri du Ghetto taldeak, eta disko horretako kantak joko ditu Berrizko gaztetxe oholatzatik. Lehenengo kontzertua eskainiko du, bestetik, Elorriko Han taldeak.

Antzerkia

:: DURANGO

Maiatzaren 16an, 22:00etan, eta 17an, 22:00etan, **Itsas ondoko eskola**, San Agustinen.

:: ELORRIO

Maiatzaren 23an, 22:00etan, **'La última oportunidad'**, Arriolan.

:: ZORNOTZA

Maiatzaren 18an, 17:00etan, **Zugan Ni**, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 23an, 20:00etan, **'La gran A...ventura'**, Zornotza Aretoan.

Erakusketa

:: DURANGO

Ekainaren 1era arte, **'Poético-político'**, Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

Ekainera arte, **Iban Gorritiren 'Essaouira-Haize ura' argazki erakusketa**, Parra tabernan.

Maiatzaren 30era arte, **Baskonia-Vasconia: bitarteko lurra**, Iturrin.

Musika

:: BERRIZ

Maiatzaren 17an, 22:30ean, **Han + Ghetto**, Hiltegeixe gaztetxean.

Maiatzaren 23an, 20:00etan, **Luke Amstrong**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Maiatzaren 16an, 21:30ean, **Durang(h)ots Jam Session**, Plateruean.

Maiatzaren 23an, 22:00etan, **III. Greatest Hits Gaua**, Plateruenean.

:: ELORRIO

Maiatzaren 17an, 23:00etan, **Korrektos + Smoking Barrels**, gaztetxean.

:: ZORNOTZA

Maiatzaren 16an, 20:00etan, **Botxo Boogies**, Dudaeko San Miguelan.

Maiatzaren 16an, 20:00etan, **Zubiaur Musika Eskolako trikiti ikasleen emanaldia**, Zelaietako auditoriumean.

Maiatzaren 18an, 12:15ean, **Barocco Sempre Giovane**, Etxanoko Andra Mari elizan.

Maiatzaren 23an, 19:30ean, **Abesbatzen trukea: Laudioko Arteon eta Zornotzako Kantalai**, Larreako San Juan Bautista elizan.

Jaiak

:: ABADIÑO

MAIATZAREN 16AN, 17:30ean, **'Vademekum' ikuskizuna**, Ferialeku plazan. 19:00etan, **San Trokaz Paleta Txapelketako finala**, Tornosolo trinketean. 22:00etan, **'7 aulki' antzezlan**a, probalekuan.

Maiatzaren 17an, 14:00etan, **Paella bazkaria**, Ferialeku plazan. 17:00etan, **herriarren arteko jolasak**, Ferialekun. 18:00etan, **Eskuz Binakako San Trokaz Saria**, pilotalekuan.

20:00etan, **parrilada**, Txanporta plazan, eta **erromeria**, Txanporta plazan. **McOnak + The Mocker's + The Capaces**, Txanporta plazan.

Maiatzaren 18an, 10:00etan, **areto-futbol partidua**, eskolako aterpean. 11:00etan, **Binakako San Trokaz Pilota Txapelketako finala**, Tornosolo trinketean. 13:00etan, **Jai-zale + Done Zezili abesbatza**, elizan. 15:00etan, **Abadiño II. Eslaloma**, Astolan. 19:00etan, **Herri Maite**, nagusien egoitza aurrean.

Maiatzaren 23an, 17:00etan, **Tomax pailazoaren abenturak**, Txanporta plazan.

Maiatzaren 24an, 09:00etan, **frontenis maratona**. 10:00etan, **bizikleta martxa**, Txanporta plazatik. 12:00etan, **Gaztelura kronoigoera korrika eta bizikletan**, hilerritik. 14:00etan, **herri bazkaria**, Ferialeku plazan. 17:30ean, **Kalejira Ustekabe txarangaz**. 23:00etan, **Exaixu + Boikat + Criatura**, Txanporta plazan.

Maiatzaren 25ean, 12:00etan, **Castellers del poble sec**, Txanporta plazan. 17:00etan, **Talde Batuak-en kalejira**. 18:00etan, **Batugara batukada**, Txanporta plazan. 19:30ean, **txokolatada**, Txanporta plazan. 20:00etan, **Gerbasi agur eta jaien amaiera**.

Berbaldia

:: DURANGO

Maiatzaren 19an, 19:00etan, **Albert Casals eta Mireia Mina: 'La glosa als Paisos Catalans'**, In-txaurre kultur elkartean.

Maiatzaren 22an, 19:00etan, **Arkeologia eta Historiaren V. jardunaldia. Vasconia Erromatarren garaian. Mertxe Urteaga (Irungo Oiaso museo): 'Meatzaritza erromatarra baskoien eremuan'**, Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

Maiatzaren 21ean, 20:00etan, **Laura Mintegi, 'Sisifo maite minez' liburuaz**, liburutegian.



:: DURANGO | ZUGAZA

Godzilla 2D

Zuzendaria: Gareth Edwards

- barikua 16: 22:00
- zapatua 17: 19:30/22:30
- domeka 18: 18:30/21:00
- astelehena 19: 21:00
- martitzena 20: 20:00

Hiroku. Defensores de Gaia

Zuzendaria: Saúl Barreto

- zapatua 17: 17:00
- domeka 18: 16:45

Por un puñado de besos

Zuzendaria: David Menkes

- barikua 16: 19:30
- astelehena 19: 18:30

2. ARETOA Godzilla 3D

- barikua 16: 19:30
- zapatua 17: 17:00
- domeka 18: 16:45
- astelehena 19: 18:30

Por un puñado de besos

- barikua 16: 22:00
- zapatua 17: 19:30/22:30
- domeka 18: 19:15/21:15
- astelehena 19: 21:00
- martitzena 20: 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

Guillaume y los chicos ¡a la mesa!

Zuzendaria: G. Gallienne

- zapatua 17: 22:30
- domeka 18: 20:00
- astelehena 19: 20:00

:: ZORNOTZA

Aprendiz de Gigoló

Zuzendaria: John Turturro

- zapatua 17: 19:30/22:30
- astelehena 19: 20:15

www.bertsozale.com/bizkaikotxapelketa



Berrizen, maiatzaren 18an, domeka, 17:30ean, Kultur Etxean



Aitor Bizkarra Ruiz

Ander Gerrañabedierra San Anon

Ander Salaberria Aherdi



Beñat Romero Maguregi

Garikoitz Saerrugarte Unaiandia

Gorika Lazcano Arizubieta



Denborapasak

ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguzitleneko 14:00ak arteko epea

1

2		9	1			
	4			3	6	7
3	6	8	4	2		
	7			3	6	
	8		5	4		2
	5	2			9	
			3	5	7	1
9	1	7				3
			4	9		8

2

		1			7	6
	6	4		2		
			7	9	4	
	2	5				
			2	1	4	3
3				5		4
					6	9
9						8
			5	3		
						2



> Zorionak Zaldibarko 3. mailako mutilei eta euren entrenatzaileei! Futbito txapelketan umetxoan mailan txapelak izan dira, partidu guztiak irabazi dituzte. Zorionak zuen gurasoen partez!



> Zorijonak Jon! Ondo pasau urtegune, eta etxeko danon partez mosu handi bat!



> Zorionak maittia zure familia guztiaren partez; batez ere, Amaian partez, kuttun. Musu potolo bat.



> Zorionak Josu, Uxue eta Anartzaren partez! Eta besarkada bat Aittite Pedrinek! 15 urte jada, ez da marka makala!



> Zure familiakoen partez zorionak Haizea bihotz-bihotzez 35 urteak gozatu pozez.



> Zorionak Aitatzu! Danak uste dogu munduko aitarik onena dekogule, baia gure kasuen egie da! Gu garena gara, zu zu zarelako.



> Bizitzaren iturria zaintzen dabil Alberto, bertatik Errioxako ardo fina irteten da. Miraria! Zorionak denon partez!



> Araitzek maiatzien 18zen 5 urte eingo dauz. Zorionak etxeko printzesa! Ondo pasau zure urtegunien eta zaren modokue izeten jarraitu.

ESKELAK



Garikoitz Bragado Azpiri

Zure bizitza orain urte 2 gelditu zan, baina gure bihotzetan beti egongo zara.

Bere ondoan egon zinetenei eta gure ondoan jarraitzen dozuenei eskerririk asko.

Urteurren ospakizuna domekan, maiatzak 18, 12:00etan, Urkiolako Santutegian.



> Prestatu zaitez, Jorge Lorenzo! Asto hau ez da edozelangoa. Mundialerako prestakuntzak egiten dabil boxesetan, zaldunaren eskutik ogia jaten. Gero hegan egingo dau!

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383



> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera

BOTIKAK

BARIKUA, 16 - 09:00-09:00

- **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango) 09:00-22:00
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00
 - **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
- ZAPATUA, 17** - 09:00-09:00
- **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango) 09:00-13:30
 - **Etzebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
 - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
 - **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
 - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
 - **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
 - **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 - **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
 - **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
 - **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)

- **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 - **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
 - **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
 - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-22:00
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00
 - **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
- DOMEKA, 18** - 09:00-09:00
- **Etzebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango) 09:00-22:00
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00
 - **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
- ASTELEHENA, 19** - 09:00-09:00
- **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 - **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

- **Urrengoetxea 5 - Zornotza**
- MARTITZENA, 20** - 09:00-09:00
- **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
- **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUAZTENA, 21** - 09:00-09:00
- **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
- **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUENA, 22** - 09:00-09:00
- **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
- **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Lopez de Aretxaga** (Torresolo 4 - Abadiño)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak 112
- Gurutze Gorria 94 681 09 49
- Osakidetza 94 600 72 00
- Ertzaintza 94 466 93 00

GARRAIOAK

- Euskotren 902 54 32 10
- Bizkaibus 94 448 40 80
- Pesa 902 10 12 10
- Continental Auto 945 286 466

TAXIAK

- Abadiño 94 681 44 70
- Matiena 606 459 988
- Durango Geltokia 94 681 10 01
- Elorrio Geltokia 94 682 00 40
- J.L. Uriarte 670 402 002
- I. Estebez 670 678 273
- M. Galeano 670 409 330
- Iurreta 94 620 15 65
- Taxi auzunea 688 618 690
- Berrizko auzo taxia 620 022 800

UDALAK

- Abadiño 94 621 55 30
- Atxondo 94 682 10 09
- Berriz 94 682 45 84
- Durango 94 603 00 00
- Elorrio 94 658 27 12
- Garai 94 681 63 93
- Iurreta 94 620 12 00
- Izurtza 94 681 35 48
- Mallabia 94 317 14 61
- Mañaria 94 681 89 98
- Otxandio 94 545 00 20
- Zaldibar 94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

- Abadiño 94 621 55 33
- Berriz 94 682 40 36
- Durango 94 603 00 00
- Elorrio 94 682 02 18
- Iurreta 94 620 08 88

5° 18° ZAPATUA



8° 25° DOMEKA



12° 26° ASTELEHENA



10° 18° MARTITZENA



SUDOKUEN SOLUZIOAK

8	7	6	2	5	3	1	4	9
3	4	5	1	6	9	8	7	2
6	1	2	4	8	7	3	5	6
9	8	7	6	4	2	5	1	3
5	2	3	8	9	1	6	7	4
4	1	6	9	3	7	5	8	2
3	9	5	7	8	2	4	1	6
7	6	4	1	5	9	3	2	8
2	5	8	3	6	7	9	4	1

2

1	6	7	8	2	4	3	9	5
3	5	1	4	6	9	7	1	8
2	8	6	9	4	5	3	7	1
4	9	7	1	3	9	7	8	5
1	5	1	6	7	4	6	5	3
2	9	4	5	3	8	1	6	7
8	7	3	1	9	5	6	4	2
6	3	5	8	1	7	4	2	9
4	7	1	4	2	1	3	6	5
6	8	2	5	7	9	3	4	1

1

“Bezeroekin dugun harreman ona da gure ezaugarri nagusia”

2013. urtetik Oier Garitagoitia zaldibartarrak Sampedro gehigarri marka sortu du Madrilen

> MAIALEN ZUAZUBISKAR

Oier Garitagoitia zaldibartarra 2010ean hasi zen moda diseinatzaile ikasketekin, eta orain dela hilabete gutxi bere marka sortu du. Garitagoitiak egiten dituen gehigarriak Madrilen inauguratu berri duen dendan daude eskuragai, eta, laster, baita bere webgunean ere.

Noiztik datorkizu moda gehigarriak egiteko zaletasuna? 2010ean moda diseinatzaile ikasketak egitea erabaki nuen, eta Madrileko Goi Mailako Diseinu Eskolara joan nintzen ikasketak egitera. Madrilen berehala konturatu nintzen nire gehiagarriak egitea zela, nahiago nuelako hori egin, arropak diseinatu baino.

Betik izan duzu modarako grina?

Txikitatik izan dut arte diziplina askorekiko interesa, eta horietariko bat moda izan da.

Interes horregatik erabaki zenuen diseinu grafikoko ikasketak egitea?

Diseinuaren mundua gustuko nuen, 20 urterekin Bartzelonara joan nintzen eta probatzea erabaki nuen. Diseinu grafikoko ikasketak egin nituen, eta aitortu behar dut horrek modaren eta osagarrien munduko atea ireki zidala.

Beraz, hartutako erabakiarekin gustura.

Moda diseinatzaile ikasketak egiteko erabakia hartzea asko kostatu zitzaidan. Baina, gaur egun, oso pozik nago hartutako erabakiagaz. Hala ere, egia da



moda mundua oso zaila dela, eta gauzak gaitz daudela.

Orain dela gutxitik, zure gehigarri marka daukazu. Nola bururatu zitzaizun ideia?

Lehenengo urtean bukatu nituen moda diseinatzaile ikasketak eta, orduan, lana topatzeari ekin nion. Baina zegoen egoera ikusita, eta bizi dugun krisi egoeraren ondorioz, gure aldetik zerbait egitea erabaki genuen. Eta, orain dela gutxi, gure markarekin hastea bururatu zitzaigun; geldirik egotea ez da gurea eta.

Sampedro markak bi jabe ditu.

Bi gara marka sortu dugunok. Ni naiz diseinatzailea eta piezak egiten dituen, baina gero datorren lan guztirako (*showroom* delakoa, estilistak eta argazkiak, adibidez) Carlos Marreroren laguntza daukat.

Zergatik Sampedro?

Diseinatzaile askok bere izenabizenaz sortzen du bere marka, eta horrela diseinatzailea bera bihurtzen da marka. Guk, berriz, garrantzi handiagoa ematen diogu gure lanari, gure proiektuak daukalako garrantzia eta ez atzean dagoen pertsonak. Hala ere, egia da Sampedro nire bigarren abizena dela.

Zein da zuen markaren ezaugarri nagusia?

Artisautza eta bezeroekiko dugun harreman estua da gure markaren ezaugarri nagusia. Pieza guztiak eskuz egiten ditugu, bezeroekin kolaboratuta; materialean, kolorean eta forman parte hartu dezakete, eta beraiei gehien gustatzen zaiena proposatu.

Eta zein da Sampedro markaren filosofia?

Gure markan garrantzia ematen diogu artisautzari eta bezeroekiko elkarlanari.

Zuen markak, besteekin alderatuta, badu berezitasunik?

Azken batean, gure produktuen berezitasun handiena produktu guztiak geuk egiten ditugula da.

Produktuei begiratuta, pertsonalak dira edo produktu berdin asko aurki ditzakegu?

Momentuz produktu gehienak pertsonalak dira, baina egin izan ditut produkzio txikiren batzuk.

Bestalde, osagarri hauek egiteko inspirazioa nondik dator-kizu?

Egia esan, nire inspirazio iturri nagusiak bizi izandako esperientziak izaten dira. Baina, azken batean, edozein tokitan, edozein unetan eta edozein tokitatik etorri ahal zaizu. Bidaiek ere oso inspiragarriak izaten dira, edozein tokitan aurkitu ahal dugulako bilatzen gauden hori.

Marka garrantzitsuentzako kolaborazioak ere egiten dituzu, zer suposatzen du horrek zuzerzat?

Azken batean, kolaborazio bakoitzak gauza berri bat jakiteko balio digu, hau da, kolaborazio bakoitza ikasketa bat izaten da. Eta ni beti nago prest gauza berriak egiteko.

Bukatzeko, zuen osagarriak erosi nahi dituenak, non dauka aukera horiek eskuratzeko?

Madrilen, Salitre kalean dugun *showroomean* eta, hemendik gutxira, gure webgunean (*sampedroaccessories.com*).

LAUHORTZA

MARISA BARRENA



Haziak

Hainbat bider entzun dugu San Jurgi artoa ereiteko goizegi, San Marko artoa ereinda balego dioen esaera zaharra. Honezkerro hainbat nekazarik ereingo zituena arto-babak eta osterantze-koak ere. Bada oraindik lurra hotz dagoela dioenik ere.

Dena dela, itaun bi datozkit burura: Zelako artoa erein ote dute gure baserritarrek? Zelako haziak erabiltzen ote ditugu gaur egun? Izan ere, ohiturak aldatu egin dira. Lehen ez genuen ia hazirik erosten. Haziak batu eta gorde egiten ziren, eta, ereiteko saioan, ingurukoekin hazi-trukea ere ohikoa izaten zen.

Gaur egun, oster, erosi egiten ditugu haziak euren jatorriari askorik erreparatu barik, sarri askotan hazi transgenikoak ere tartean izanik. Ezin ahaztu, baina, hortxe hortz zorrotzekin ehizan dugun Monsanto hazi sortzaile eta ekoizle muntroa, haziak ez eze, pestizidak, herbizidak eta ingurumarien bidez munduko elikaduraren kontrola bereganatu duen multinazional boteretsua.

Arrisku horretaz jabeturik, joan den hilabetean Nekazarien Borrokaren Nazioarteko Egunean hazien defentsa egiteko deia egin du Vía Campesina erakundeak, hain zuzen ere, baserritarrek erabiltzen dituzten hazien defentsa egin dute. Erakundeko kideen esanetan, “haziak elikadura burujabetzaren funtsezko oinarrietako bat dira”.

Gure esku dago hazietatik hasten den burujabetza zaindu eta lantzea. Hazitik dator fruitua, hazitik gure janari eta elikadura. Has gaitzen hazi egokiak erabiltzetik. Hortxe dugu lagungarri, besteak beste, Euskal Herriko Hazien Sarea eta sare horrek argitaratutako Ohiko baratz landareen haziak gordetzeko gidaliburua. Eutsi diezaiozun geure autonomiari. Libra gaitzen Monsanto eta antzekoen mendekotasunetik.

Bozkatu

jendearekin bat



ezker anitza